

Bakardadearen korapiloa askatu



Bakardadeari buruz
herritarren artean egindako
galdetegiaren emaitzak
aurkeztu ditu Udalak

Debagoiena Ehuntzen

Bakardadearen korapiloa askatu



> Aukeratu gabeko bakardadeari aurre egiteko neurriak hartzeko lanketa abiatu du Debagoieneko Mankomunitateak

> Lanketa horren baitan, herritarren artean udan egin zen inkestaren emaitzak aurkeztu dituzte

> Oñatin oso harrera ona izan du ekimenak; 156 herritarrek bete zuten inkesta

Gizarteak gero eta interes handiagoa du bakardadeekiko, eta horrek agerian uzten du bakardadeak elkarlanean landuko dituen gizarte baten beharra, besteak beste, norbanakoaren bakardade sentsazioa txikiagotu dadin. Horri erantzuna eman guran, **Debagoiena Ehuntzen** proiektua abiarazi dute Debagoieneko udalek. Haren helburu nagusia da eskualde-ekosistema bat abiaraztea, bakardadea ikuspegi komunitario, normalizatzailerik, parte hartzaile, inklusibo eta estigmatik gabeko batetik lantzeko.

Debagoiena Ehuntzen proiektuaren baitan, galdetegi bat zabaldu zen Oñatin eta Debagoieneko gainerako

herrietan 18 urtetik gorako herritarren artean bakardadea kuantifikatzeko. "440 pertsona baino gehiagok erantzun dute galdetegia, 156k, Oñatin. Harrera ona izan du ekimenak. Horri esker, bakardadearen inguruko irakurketa sakon bat egin daiteke", azaldu du Lierni Altube Moia Ongizate batzordeburuak. "Dena den, "zuhurtiaz" azaldu beharreko datuak dira, parte hartu dutenen erantzunetan oinarriturikoak baitira".

Zehatz esanda, galdetegia erantzun dutenen artean, emakumeak dira %73. Ostera, adin tarteari dagokionez, 18 eta 64 urte artekoak dira parte-hartzaileen %47, eta, 64 urte baino gehiagokoak, %53. "Erantzun kopuruetan, parekatuta

daude bi adin tartearak. Horrela, emaitza aberasgarriagoak lortu dira", aitortu du Ongizate batzordeburuak. (Ikusi emaitza nagusiak ondorengo orrietan).

EKINTZA BERRIAK

Eskualdeko herrietan eginiko galdetegia izan da *Debagoiena Ehuntzen* proiektuaren baitan kanpora begira eginiko lehen ekimena. **Urtarrilaren 28an**, bakardadeari buruzko hitzaldia eskainiko du Elisa Sala Mozosek Oñatiko Kultur etxean, arratsaldeko 18:00tan. Hurrengo urratsa beste herri batzuetan bakardadeari aurre egiteko landu diren esperientziak ezagutzea izango da, otsailean egingo den saioarekin.

Mekalki
S. Coop. mekanizatuak

Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es

ANE MERTZERIA



- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

> EMAITZA ETA ONDORIOAK

Hona hemen galdetegiak eskainiriko zenbait emaitza eta ondorio (Oñatiko datuak).

1. Bakardade sentimenduaren maiztasuna eta intentsitatea

Adierazle erabilienak dira bakardadea neurtzeko.

% 22,5 askotan edo beti bakarrik sentitzen da.



Grafikoa: Bakardade sentimenduen maiztasuna, adin-tarteen arabera

% 9k intentsitate handiko bakardade sentimendua du, eta, % 21ak, ertaina.



Grafikoa: Bakardade sentimenduen intentsitatea, adinaren arabera


%58k esperientzia positibo gisa bizi du bakardadea.



Grafikoa: Bakardadearen maiztasuna esperientzia positibo gisa, adinaren arabera

2. Harreman sozialak eta bakardadea

%12,9 isolamendu arriskuan dago, eta %9k ez du etxez kanpoko eguneroko harremanik. Adinaz bereiztuta berdintsuak dira ehunekoak.



Grafikoa: Adinaren arabera, integrazio sozial handia eta gizarre-isolamendu arriskua duten pertsonen portzentajea

Grafikoa: Etetik kanpoko pertsonekin eguneroko harremana, adinaren arabera

3. Bakardade sozial eta emozionala

% 75ek baino gehiagok bakardade emozionala eta soziala sentitzen dute.

Bakardade mota honetan pertsonak ez du norengana jo laguntza behar izanez gero, ez du inor konfiantzazkorik edo adiskidetasun esturik.

% 36,9k bakardade sozialaren adierazle guztiak ditu.



Grafikoa: De Jong Gierveld eskalaren arabera bakardadea duten pertsonen portzentajea, adinaren arabera.

4. Osasuna eta ongizate subjektiboa


Osasuna ere bada eguneroko jardueran eragiten duen faktore bat.



Grafikoa: Osasun-arazoez eguneroko jardueretan eragindako mugak, adinaren arabera

5. Depresio arriskua

Ongizate subjektiboa ere neurtu da, depresio-arriskuan egon daitezkeen pertsonak bereizteko aukera ematen duen eskala baten bidez.



Bakarrik sentitzen diren pertsonen %57a norbaitekin bizi da.



6. Garraio publikoen eragina

%32 dira harreman sozialak izateko garraio publikoak laguntzen ez dutela diotenak.



OHARRA: Inkesta edo galdetegiaren emaitzak bere osotasunean kontsultatu nahi izanez gero, udalaren webgunean (www.oñati.eus) egongo dira ikusgai, Debagoieneko datuekin batera.



LIERNI ALTUBE
udaleko Ongizate
batzordeko burua



"Elkar zaintza ulertzea eta praktikan jartzea da aldaketa sozialerako giltzarrietako bat"

Ondoriorik ekarri al du herritarrek beteriko galdetegiak?

Bai. Tartean, bakardade ez-hautatuak baduela presentzia gure inguruan, eta kezka partekatzen direla. Orain, datu horiek esku artean daudela, denon artean ekintzak diseinatzen hastea dagokigu, bakardadeari aurre egiteko, harreman osasuntsuak eta elkar zaintza sustatzeko. Komunitatea indartzeko bide berriak irudikatzen eta bazirenak berreskuratzen hasi beharra dago.

Zein da aldaketarako giltzarri?

Elkar zaintza ulertzea eta praktikan jartzea da aldaketa sozialerako giltzarrietako bat; izan ere, harreman zainduetan hasten da benetako eraldaketa. Gizarte azkar eta zatitu honetan, komunitateak ematen duen babesak du benetako balioa.

Urtarrilaren 28an bakardadeari buruzko hitzaldia antolatu duzue Elisa Sala gizarte aholkulariarekin. Zer eskainiko du?

Bakardadeari buruz egingo du berba, baina ez du interpretaziorik eskaini nahi, bertaratutakoen hitza entzun eta denon artean bakardadearen definizio partekatu bat eraikitzeke espazioa izango da. Aurrera begira, bakardadea ulertzeko eta horri aurre egiteko ekintzak elkarrekin sortzea izango da helburua.



Kiroldegiko bazkide txartela berritzeko unea iritsi da

- > Abonuan aldaketak egiteko azken eguna urtarrilaren 15a da.
- > Hobari eskaerak urtarrilaren 2tik 20ra egin behar dira.
- > Aurten hobaria jaso dutenek berriro egin behar dute eskaera, 2026an ere hobaria jaso ahal izateko.

Urtea amaitzearekin batera, Zubikoa kiroldegiko bazkide txartela berritzeko unea iritsi da. Abonuan aldaketaren bat egin edo bajak/altak tramitatu nahi izanez gero, Zubikoa kiroldegian egiteko aukera dago jada, dagokion inprimakia beteta. Aldaketa horiek 2026ko urtarrilaren 15a baino lehen egin behar dira. Abonuen kobrantza urtarrilaren amaieran egingo da.

Hauak dira 2026ko abonuetan aintzat hartuko diren irizpideak:



BAJA ESKAERAK EDO ALDAKETAK

Abonuaren baja eskaera edo aldaketak epe barruan eskatu ezean, automatikoki dagokion adin-tarteko abonua kobratuko zaio bazkideari.

Gaur egun
4.290
bazkide ditu
Zubikoa kiroldegiak

ESKUZ ORDAINTZEN DUTENAK

Abonua eskuz edo banku-txartelarekin kiroldegian ordaintzen dutenek, urtarrilaren 2tik aurrera egin ahal izango dute 2026ko kuotaren ordainketa Zubikoa kiroldegian bertan. Data horretatik aurrera baja emango zaie, abonua ordaindu arte.

HOBARI ESKAERAK

2025an hobariren bat jaso dutenek, eta 2026 urteko kirol-abonuan hobaria jaso nahi badute, berriro egin behar dute eskaera udaletxeko HAZ (Herritarren Harrera Zerbitzua) bulegoan aurrez aurre, edota telematikoki <https://www.oñati.eus>. Hobariak urtarrilaren 2tik 20ra bitartean eska daitezke. Bestela, eskaera egin ezean, abonua kuota osoa kobratuko da. Eskaera egiteko inprimakia kiroldegian edo udaletxean (HAZ) jaso daiteke. Kontutan izan, abonuan aldaketaren bat egin nahi bada, dagokion abonatu orria behar bezala beteta aurkeztu behar dela, hobari-eskaerarekin batera. Bizikidetza unitateko kide kopuruaren eta diru-sarreraren arabera, %10 eta %95 arteko hobaria eskuratzeko aukera dago.

23 URTE BETE DUTENAK

23 urte beteak dituzten gazteak ezingo dira familia-abonuan sartuta egon. Aurrerantzean, kiroldegiko bazkide izan nahi badute, banakako bazkidetza egin beharko dute. Horretarako, urtarrilaren 2tik aurrera dagokion inprimakia bete beharko dute kiroldegian. Bestela, baja emango zaie.

Hilobien emakida berritzeko epea apirilera arte luzatu da

Kanposantuko alde zaharrean dauden hilobien emakida edo kontzesio epeak iraungita daude. XIX. mende akaberan egin zen hilerriko panteoien emakida bizitza osorako zela esan zen, baina ondorengo araudiak 75 urtera mugatu dute epe hori, eta, ondorioz, kanposantuko alde zaharreko hilobi guztien emakidak iraungita daude. Beraz, hilobi horiek erabiltzen jarraitu nahi duten jabeek berriro egin behar dute emakida.

Udalak gutun bana bidali die panteoietako jabeei, emakida iraungita dagoela ohartaraziz, eta hasera batean, abenduaren 31ra arteko epea finkatu zen emakidak berritzeko. Batzuek jada eskatu dute luzapena, baina jabe guztiekin harremanetan jartzea lortu ez duenez, emakidak berritzeko epea 2026ko apirilaren amaiera arte luzatzea erabaki du Udalak.

HILOBI BATZUK EGOKITU BEHARRA

Hilerriko langileen segurtasuna bermatzeko aldera, kanposantuko alde zaharreko hainbat hilobitan egokitze lanak egin beharko direla erabaki du lan-prebentziorako udal batzordeak. Guztira, 300 bat panteoi direla kalkulatu da. Udalak jakinarazpena igorriko die jabeei.



Ramon Irizar kalea, 3
Tel: 943 71 61 60

etxian@etxian.net
www.etxian.net



Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com



Bukatu dira Urgaineko jolasgunea berritzeko lanak

> Jolasgunea herritar ororentzat egongo da zabalik eskola orduetatik kanpo –astegunetan, 16:30etik aurrera– eta asteburuetan egun osoz > la 150.000 euro inbertitu dira berritze lanen azken fasean

Dagoeneko bukatu dira Urgain ikastetxeko kanpo espazioko jolas gunea berritzeko lanak. Uztailetik azarora bitartean egin den azken fasean, nagusiki, jolaserako elementuak jarri dira. Orotara, bederatzi gune sortu ditu Udalak, hala nola, tirolina gunea, akazia etxola, enbor-pila jokoa, alertze tipia, magaleko txirrista... “Adin eta gustu desberdinetako haurrendako espazioak sortu dira. Espazio ez hierarkizatuak dira, berdeak, leunak, sormena pizten laguntzen dutenak, aniztasuna eta berdintasuna oinarri dituztenak... Oro har, gaurko eta etorkizuneko erronkak erdigunean, esperimentatzeko eta landu beharreko balioak lantzeko aukera eskaintzen dute”, azaldu du Asier Lauzurika Arrondo Hezkuntza batzordeburuak.

Orain arte moduan, jolas gunea herritar ororentzat egongo da zabalik klase orduetatik kanpo (astegunetan, 16:30etik aurrera; eta, asteburuetan, egun osoz). la 150.000 euroko (BEZ barne) aurrekontua izan du azken faseak –hainbat diru laguntza jaso dira–.

Natura elementuek esangura handia dute jolas gune berrian, eta, horrek, aukera eskaintzen du ingurumenarekin harreman iraunkorra lantzeko. “Haurrek aukera izango dute naturan ematen diren prozesuak ikusteko eta bizitzeko, eta hori baliagarri izango dute hura ulertzeko eta errespetatzeko. Gainera, egur naturalak protagonismo berezia du espazioan”, argitu du Hezkuntza batzordeburuak. Natur Eskolako hezitzaileen aholkularitza ere izan du gunearen sortze prozesuak.

Espazio desberdinak eskaintzen ditu jolas guneak, eta umeei askotariko balioak landu ahal izango dituzte bertan, izan ere, besteak beste, landaredia ezagutzeko (botanika), urarekin jolasteko (ekologia eta hidraulika), bertako baliabideekin txabolak eraikitze (arkitektura eta eraikuntza), esperimentuak egiteko (zientzia) eta gorputza zein burua aktibatze (dantza



Urgaineko eta udaleko Gazteria eta Hezkuntza batzordeko ordezkari politiko eta teknikoak, eskolako kanpo espazio jolasgune berrituan

» Asier Lauzurika / Udaleko Hezkuntza batzordeko burua

Adin eta gustu desberdinetako haurrendako espazioak sortu dira. Espazio ez hierarkizatuak dira, berdeak, leunak, sormena pizten laguntzen dutenak, aniztasuna eta berdintasuna oinarri dutenak

egitea, abestea, arte eszenikoetan jardutea...) elementuak barnebiltzen ditu Urgainen kanpo espazioko jolas guneak.

Jolaserako elementuak jartzera mugatu barik, bestelako lanak egin ditu Udalak azken fasean ere: ezpondetako urak egoki bideratzeko drainatze sarea egokitu du, ura kanalizatzeko lanak egin ditu, itxiturak berritu dira (gunearen goialdean, urmael inguruan...), eserlekuak jarri ditu... Saskibaloiko eta futboleko kantxa bana ere birgaitu du.

“Azken urteetan arreta bereziz dihardu UdalGobernuak herriko jolas guneak egoitzen edo berriak sortzen. Egokitze hutsetik harago, jolaserako joera berriak eta gizartearen erronkak dituzte erdigunean”, azaldu du Izaro Elorza alkateak.



0-3 urteko haurrentzako jolasgunea egokituko du udalak San Lorentzon

➤ Artxubin dagoen jolasgunea osatuko du

Goiko planoetan ikus daitekeen moduan, Artxubiko jolasgunearen eta BUS geltokiaren arteko bi berdegune moldatuko dira eta hiru jolas eremu edo gune sortuko dira.

Herriko jolasguneen inguruan aurreko agintaldian egin zen **Jolastuku** izeneko diagnostikoa oinarri hartuta, 0-3 urte arteko haurrentzako jolasgunea egokituko du udalak San Lorentzon, Artxubi tabernaren aldamenean dagoen jolas parkearen alboan. "0-3 urte bitartekoendako jolasgune beharra identifikatu zuen **Jolastuku** diagnostikoak. Jolas material naturalak eta testura desberdinak erabiliko dira, haurrek esperimentatzeko eta ikertzeko aukera izan dezaten", azaldu du Ekhiñe Mendi Altubek, Haur eta Gazteria batzordeburuak.

Goiko irudietan ikus daitekeen moduan, Artxubiko jolasgunearen eta autobus geltokiaren artean dauden parterre edo berdeguneetako bi moldatuko dira umeentzako jolas eremu berriak sortzeko. Orotara, hiru eremu edo gune sortuko dira, aukera desberdinak eskainiz adin, interes edo gaitasun desberdineko haurrei.

Guneetako bat 18 hilabete arteko haurrei zuzenduta egongo da. Kortxozko zoru biguna izango du, haur txikienak



Azaroaren 19an hasi ziren lanak eta hilabeteko epean amaitzea aurreikusita dago

etzan edo lau oinetan ibiltzeko, eta banku jarraitu batez inguratuta egongo da, zaintzaileak eseri ahal izateko. Beste bi guneetan hondar eta pinu-azalezko zoruak egokituko dira, eta rol-jolasetarako, ariketa fisikorako, atsedenerako edota esperimentatzeko aukera emango duten elementuak jarriko dira: enborrak, egur listoiak, harriak, mahaia, aulkiak...).

Azaroaren 19an hasi ziren jolasgunea egokitzeko lanak eta hilabeteko epean amaituta egotea aurreikusten da. **K1 Ekopaisaia** enpresa ari dalanak egiten, 40.000 eurotan –BEZ kanpo–.

JOLASGUNEEN PLANA

Herriko espazioak hobetzeko, jolas ohitura berrien arabera egokitzeko, eta berriak sortzeko bide-orria lantzeko asmoz herriko jolasguneen plana ('Jolastuku') landu zuen udalak aurreko agintaldian, **Projekta Urbes** ingurune natural eta inklusiborako hirigintza aholkularitzaren laguntzarekin. Diagnostiko teknikoaz gain, haur, nerabe, guraso, eta hezitzaileen parte-hartze saioak ere egin ziren. "Jolasguneen plana ez zen azpiegitura edo elementu soilak proposatzera mugatu, eta aintzat hartu zituen jolaserako joerak, gizartearen gaurko eta etorkizuneko erronkak, landu eta hedatu beharreko baliok... Diagnostikoa osotasunean jorratu zen eta herriko jolasgune guztiak aztertu ziren", adierazi du Haur eta Gazteria batzordeburuak.



Usakorako bidegorria azken txanpan

> Europako **Next** funtsetik jasotako 2,16 milioi euroak exekuzio bidean ditu Udalak

2023ko ekainean 2,16 milioi euro jaso zituen Oñatiko Udalak Europako *Next Generation* funtsetatik, proiektu turistiko jasagarriak sustatzeko Europar Batasunak egindako deialdiaren baitan. Dirulaguntza horretako zati bat –569.000 euro–, Torreauzo eta Usako artean bidegorria eraikitzeko proiektura zuzenduta zegoen, eta goiko argazkietan ikus daitekeen moduan, lanak oso aurreratuta daude.

USAKORAKO BIDEGORRIA

Bidegorriak 700 metro inguru izango ditu, Torreauzon hasi eta Exibai baserri pareraino. Lehenengo zatian, Elazarra baserri parean, errepidearen eskumako aldetik joango da bidegorria –Chinchurreta enpresako sarrera saihesteko–, eta hortik aurrera, errepidearen ezkerreko aldera pasako da. Chinchurreta eta Exibai arteko tartea oso aurreratuta dago. Bidegorria izango denaren oinarria ia amaituta dago, eta, bide batez, argindar eta telefonia lineak ere lurperatu dira.

Orain, Elazarra baserriaren aurrealdeko tartea egokitzen ari dira, eta, ustekaberik ez bada, urtarrila-otsailerako lanak amaituta egotea espero dute udal arduradunek.

EMAKUMEEN ETXEA, DISUASIO APARKALEKUAK ETA USAKOKO PAISAIA

Next Funtsetako 'Trantsizio berde eta iraunkorra' izeneko beste adar batean, hiru proiektu gauzatzeko milioi bat euroko dirulaguntza jaso zuen Udalak, eta hiru egitasmo hauek ere oso aurreratuta daude.

Alde batetik, Emakumeen Etxearen bigarren faseko birgaitze iraunkor integrala dago, eta proiektu honetara 800.000 euro bideratu dira. Lanak azken fasean sartuta daude eta udaberriko amaituta egotea aurreikusten da.

Atal honetako beste proiektu bat bisitarientzako disuasio-aparkalekua egokitzea zen. Kasu honetan, aparkaleku berria kiroldegiko kantxa berdearen atzealdean egokitu da. Aparkalekua bera amaituta dago, eta orain gunea monitorizatzea falta da; hau da, aparkalekuetan ipini diren sentsoreak San Juan kaleko biribilgunean dagoen semaforoarekin konektatzea. Lan hauek datozen egunetan egingo dira. Proiektu honetara 100.000 euro bideratu dira.

Atal honetako hirugarren egitasmoa, Usakoko aisialdi eremuko paisaia lehengoratzea zen. Lan hauek ere ia amaituta daude. Alde batetik, Udalak Usako-Muñoa izeneko lursaila (4.000m²) erosi du, eta horri esker Usakorako sarbide berria egokitu du Exibai baserriko zubitik. Horrez gain, Usakora doazen beste bidezidorretako zorua trinkotu, urak batzeko azpiegitura egokitu eta segurtasun hesiak ipini edota sendotu dira, besteak beste. Landaketa batzuk egitea besterik ez da falta. Proiektu honetara beste 100.000 euro bideratu dira.

PLAZA INGURUAK ETA KOMUNIKAZIO DIGITALA

Foruen plaza aldameneko berdeguneetan eta jolas eremuan esku-hartze integrala egiteko 300.000 euro jaso zituen Udalak *Next* Funtsetik, eta lanak bere bidean doaz. Ustekaberik ez bada, otsailerako amaituta egotea espero da.

Bestalde, turismo-produktuen eskaintza garatzeko (30.000€) eta komunikazio digitala eguneratzeko (90.000€) laguntzak ere jaso zituen Udalak. Arlo honetan, Oñatiko turismoari lotutako marka berria sortu da, irudi berri horri lotutako webgune berria garatu da, webgunea eta bestelako euskarri turistikoak hornitzeko ikus-entzunezkoak grabatu dira –tartean Oñatiko zenbait eraikinen 360ºko bista eskainiko dutenak– eta herriko sarrera eta gunen turistikoetako panel eta seinaleak berrituko dira. Udaberrian aurkeztuko dituzte guztiak batera.

ARAOTZ ETA ARANTZAZUKO APARKALEKUAK

Arantzazu eta Araotzeko aparkalekuak monitorizatzeko 126.000 euro jaso zituen udalak *Next* Funtsetik, eta hauxe da abian jartzear dagoen egitasmo bakarra. Proiektua idatzita dago, baina lizitazioa hutsik geratu zen, eta, orain, egokitzapen batzuk egin ostean, berriro aterako da lizitaziora datozen egunetan.

Udal gobernuak positiboki baloratu du *Next* funtsen kudeaketa. "Pozik gaude, batetik 2,1 milioi lortu ditugulako –%100ean finantzatuak–, eta jasotako laguntza ia guztia exekuzio bidean daukagulako –bestela itzuli egin behar da dirua–, nahiz eta horrek ekarri duen Udalak esku artean daukan proiekturen bat –Etxaluzeko parkea, adibidez– pittin bat atzeratzea. Baina horrek bere diru partida dauka, eta berandutxoago bada ere, egingo da. Lehentasun eman diogu *Next* laguntzak martxan jartzeari".

Udalak aholkularitza psikologiko zerbitzua eskainiko die 16 eta 30 urte arteko gazteei, dohainik

Orientazio saioak izango dira, ez terapia. Gazte bakoitzak 5 saio jasotzeko aukera izango du.



**San Juan kaleko
5 zenbakiko
lokaletan
eskainiko da
gazteentzako
aholkularitza
psikologiko
zerbitzua**

◀ Jone Galdos,
aholkularitza zerbitzua
eskainiko duen
psikologoa, Ion Lopez,
Gazteria teknikaria, eta
Ekhiñe Altube, udaleko
Haur eta Gazteria
batzordeko burua

Oñatiko herritarren ongizatea lehen-tasuna da udalarentzat. "Herritarren ongizatearen oinarritzko zutabeetako bat da osasuna, eta osasungintza publikoan dagoen blokeoak zuzenean eragiten die gazteei. Pairatzen ari dira pandemiaren eta egungo bizimoduaren ondorioak: ziurgabetasuna, gehiegizko albiste negatiboak, urruntze soziala eta familiarra, pantailak gehiegi erabiltzea, krisi ekonomikoa... Horiek eragin zuzena dute osasun mentalean zein emozionalean", azaldu du Ekhiñe Mendi Altube Haur eta Gazteria batzordeburuak.

Hori dela eta Udalak "bere alea" jarri nahi du egoera honi buelta ematen laguntzeko.

AHOLKULARITZA ZERBITZUAREN FUNTZIONAMENDUA

16 eta 30 urte arteko gazteei zuzendutako zerbitzua izango da. Hala ere, eta soilik beharrezkoa balitz gaztearen orientazioan laguntzeko, gazteen guraso eta tutoreei ere eskaini ahalko zaie aholkularitza, dohainik. Normalean bakarkako saioak izango dira, nahiz eta taldekako saioak antolatzea ere posible izango den, beti ere psikologo batek bideratuta. "Berariaz gazteentzako diseinatutako zerbitzua" izango da.

Aholkularitza psikologiko zerbitzua hainbat gai lantzeko egongo da prestatua, hala nola: osasun mentala, osasun emozionala, autozainketa, elikadura-portaera nahasmenduak, menpekotasun egoerak, familia harremanak, harreman sozialak ...

Oñatiko Udalaren San Juan kaleko lokaletan emango da zerbitzua, hasiera batean astean behin, ostegun arratsaldetan. Erabiltzaile bakoitzak gehienez ere bost orientazio saio jasotzeko aukera izango du; orientazio saioak izango dira, ez terapia. Presentzialtasuna ezinezkoa den kasuetarako saioak online formatuan egiteko aukera ere egongo da.

Saioak "gertutasunetik eta zintzotasunetik" egitea izango da zerbitzuaren helburua, eta "konfidentzialtasuna bermatuko da uneoro". Aurrez hitzordua hartu beharko da: **gazteaholkularitza@onati.eus**-era idatzita edo **688 815 351** telefonora deituta.

"Orain martxan jarriko dena, proba pilotua da, ikusteko gazteen beharrei modu egokian erantzuten dien", argitu du Haurrak eta Gazteria batzordeburuak. Esperientzia pilotua, urtariletik uztailera egongo da martxan, eta uztaillean, balorazioa egingo da. Hala ere epe luzeko apustua izan nahi du honek: "Oñatiko gazteen buruko osasun egoera sakonago ezagutzeko aukera emango du, prebentzio estrategia egokituak diseinatzen laguntzearekin batera".

Hainbat gai landu ahalko dira zerbitzuan: osasun mentala, osasun emozionala, autozainketa, elikadura-portaera nahasmenduak, menpekotasun egoerak, familia harremanak, harreman sozialak...

JUANJE MARGOAK
627 818 247

 **ARKITEKTURA**

Baserriak * Teilatuak * Fatxadak * Igogailuak

Bidebarrieta 13. Oñati * tel: 677 31 20 57
amaia@aiarkitektura.com



EH Bilduren
udal taldea.
Iñigo Ruiz eta
Asier Lauzurika
falta dira.

22,5 milioi euroko aurrekontu proposamena aurkeztu du EH Bilduk 2026rako

> Inbertsioetara **2,4 milioi** bideratzea aurreikusten da > **2 milioi** euroko aurrezki arrunta du aurrekontu proposamenak

Datorren urterako aurrekontu proposamena aurkeztu zuen EH Bilduren udal taldeak azaroaren 18an, komunikabideen aurrean. Datu orokorreki erreparatuz, 2026ko udal aurrekontua **22.495.557** eurokoa izango litzateke, aurtengoa baino %1,8 handiagoa. Inbertsioetara **2,3 milioi** euro pasa bideratzea aurreikusten da, etorkizunerako beharrezkoak diren azpiegiturak sortzen edo hobetzen jarraitzeko. Gastu estrukturalak apur bat gora egiten du EH Bilduren aurrekontu proiektuan, zerbitzu publikoak hobetu eta lan hitzarmen berriak aplikatzearen eraginez. Hala ere, **2 milioi** euroko aurrezki arrunt positiboa du aurrekontu proposamenak, 2025ekoak baino %11,5 handiagoa, udalaren egonkortasun ekonomikoa bermatzen delarik.

Herria hobetzen jarraitzeko aurrekontu proposamena dela adierazi zuen Izaro Elorza alkateak, alor guztietako beharrak eta, oro har, Oñatirenak kontuan izanda landutakoak. "Arduraz landu ditugu, sailen arteko oreka mantenduta, jakinik, herri honek, gizarteak bezala, askotariko erronkak dituela".

"EH Bilduren herri programa eta gure gobernantza eredua izan ditugu oinarrian", gaineratu zuen alkateak; "berdinetik berdinerako erudian oinarritzen dena, inor bazterrean uzten ez duena, iraunkortasuna ardatz duena, herritarren partaidetza eta lurraldearen garapen orekatua sustatzen jarraituko duena".

Jarraian, aurrekontu proposamenean jasotako zenbait proiektu azaldu zituen Elorzak. Hasteko, esan zuen, herriko kultura zein kirol eragile eta auzoetako jai batzordeei bideratutako dirulaguntzetan **%5eko** igoera orokorra aurreikusten dela. "Uste dugu aitortu beharrekoa dela horiek guztiek herriaren alde egiten duten lana". Oñati Abesbatzaren 60. urteurrena, Atzeko Kaleko jaien mendeurrena, eta egonkortzera datorren Blues jaialdirako partida bereziak egongo direla ere aurreratu zuen. Ikusi bestelako proiektuak ondo taulan.

Aurrekontu proposamena oposizioaren esku dago orain, eta, ustekaberik ezean, abendua-ren 18ko plenoan eztabaidatu eta onartuko dira 2026ko udal aurrekontuak.

Egitasmo nagusiak

- **Irisgarritasuna**
400.000 euro bideratuko dira Kale Zaharra eta Otadui Zuhaiztia arteko irisgarritasun lanetara.
- **Olaiturri**
125.000 euro bideratuko dira Olaiturriko zorua konpondu eta bestelako esku-hartzeak egiteko.
- **Etxebizitza**
Udalaren jabetzako lursail batean etxebizitza eredu berri bat sortzeko aukerak aztertzeko 15.000 euroko partida aurreikusten da.
- **Ikasketa gunea**
120.000 euro bideratuko dira Eltzian ikasketa gune bat egokitzeke.
- **Partaidetzazko Aurrekontuak**
300.000 euro bideratuko dira (eta 2027an beste 300 mila) Partaidetzazko Aurrekontuetan herritarrek hautatutako proiektuak burutzeko.
- **Ikastetxeak**
113.700 euro bideratuko dira ikastetxeen dirulaguntzetara, eta 57.000 hezkuntza eragileen arteko elkarlanerako.
- **Pake Leku**
Jubilatuena Etxea hobetzeko 80.000 euroko diru partida.
- **Musika Eskola**
35.000 euroko partida musika eskolako birgaitzeetarako.
- **Zaintza eta Harrera planak**
40.000 eta 30.000 euroko diru partidak 'Zaintza' eta 'Harrera Plan integrala' garatzeko. Zaintzarekin lotuta, gazteendako aholkularitza psikologikorako zerbitzu pilotua martxan jarriko da.
- **Argindar merkaturatzailea**
Aurrekontuetan partida berezirik ez duen arren, datorren urterako proiektu nagusietako bat izango da.



PARTAIDETZAZKO AURREKONTUAK

50 proposamenek gainditu dute leheneste fasea

> Proposamen horien bideragarritasuna baloratuko da orain alderdi tekniko, juridiko eta ekonomikotik, eta hortik aterako dira bozketa fasera igaroko direnak.

> Urtarrilean egingo da bozketa.

'Partaidetzazko Aurrekontuak 2026-2027' prozesuak bere bidea egiten jarraitzen du. Gogoratu, helburua dela herritarren artean erabakitzea zertan inbertituko diren udal aurrekontuetako 600.000 euro -300.000 euro bana 2026an eta 2027an-. Irailean jarri zen abian prozesua, herritarrek egindako proposamenekin. Denera, 411 proposamen jaso ziren.

Ondoren, proposamen horiek guztiak Mahai Politikoak -udalbatza dauden bi alderdi politikoetako ordezkariak osatutako- banan-banan aztertu zituen aurrez ezarritako baldintzak betetzen zituzten ala ez erabakitzeko. Lehen galbahe horren ostean, 145 proposamen onartu ziren bigarren fasera ('Proposamenak Lehenetsi') igarotzeko.

Bigarren fase honetan herritar guztiei irekitako bi tailer egin ziren, 145 proposamen horiek puntuatu eta baloratzeko, lau irizpideren arabera: **1.** Onuradun kopurua; **2.** Onuradunen ezaugarriak (herritar zaurgarrien beharrei erantzuten ote dion); **3.** Eskara historikoa (Oñatin aspaldidanik egiten den eskara ote den) eta **4.** Exekutatzeko erraztasuna.

Leheneste faseko bi saio horietan 23 herritarrek parte hartu zuten, eta balorazio altuena jaso zuten 50 proposamenak igaro dira hirugarren fasera ('Bideragarritasun Fasea'). Fase honetan proposamenen bideragarritasun tekniko, juridiko eta ekonomikoa aztertzen dute udaletxeko arlo ezberdinetako teknikariek, eta arloko zinegotziek, eta horren arabera erabakitzen da zein proposamen igaroko diren laugarren eta azken fasera ('Bozkatu eta erabaki'). Ustekaberik ez bada, urtarilaren 12tik 30era bitartean egingo da bozketa fasea.

PROPOSAMENEN JARRAIPENA

Udalaren webgunean -www.oñati.eus/eu/partaidetzazko-aurrekontuak/dokumentuak- kontsulta daiteke herritarren proposamen bakoitzak egin duen bideari buruzko fitxa. Ondoko QRak eramango zaitu bertara.



Eskualdeko autobus zerbitzuaren 'egoera larria' konpontzeko eskatuko dute Debagoieneko alkateek

Orain dela urtebete egindako bileran Foru Aldundiko Mugikortasuneko diputatuak urratsak emateko konpromisoa azaldu bazuen ere, orduko hartan egindako eskariak gelditu daudela salatu dute Debagoieneko alkateek. Hauek ziren eskaera nagusiak: 1. Herrien arteko loturetan 15 minutuko maiztasuna bermatzea; 2. Puntualtasuna bermatzeko neurri eraginkorrak ezartzea; eta 3. Hiriburuetarako eta beste eskualdeetarako konexio estrategikoak indartzea.

Alkateek gogorarazi dute Debagoienak ia 63.000 biztanle dituela, autobusa dela garraio publiko bakarra, eta egungo egoerak kezka handia sortzen duela. Hori dela eta, bilera berria eskatu diote Aldundiari, autobus zerbitzuaren "egoera larria" konpondu dezan eskatzeko. "Konpromiso argiak eta egutegi zehatzak eskatuko ditugu. Debagoienak ezin du gehiago itxaron".

Kutxabankek eta Laboral Kutxak Oñatiko bulegoetan euskara lehenesteko konpromisoa berretsi dute



UEMA, Kutxabank, Laboral Kutxa eta Oñatiko udaleko ordezkariak, hitzarmena sinatzen

Finantza alorrean euskararen erabilera areagotzeko hitzarmena sinatu du UEMAK (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) Kutxabank, Laboral Kutxa eta Bankoa-ABANCArekin. Hizkuntza irizpideak adostu dituzte, eta finantza erakunde horiek udalerri euskaldunetan dituzten bulegoetan euskara lehenesteko konpromisoa hartu dute. Finantza erakundeetako ordezkariak eta UEMAKo 59 udalek sinatu dute hitzarmena.

Zazpi puntutan bildu dituzte hitzarmenean jasotako konpromisoak. Hala, Udalen eta finantza entitateen arteko harremanak, ahoz zein idatziz, euskaraz izango direla adostu dute. Bestalde, herritarrekiko harremanei dagokienez, hiru finantza entitate horiek hitzarmena sinatu duten udalerritan dauzkaten bulegoetan euskararen presentzia bermatuko dutela hitz eman dute.

**ARRIZABALAGA**
Aroztegia

**PAKITA**
Altzariak



Berezao Ind. 10
Tel. 943 78 14 64

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

**Ingeleseko Akademia**
Listening Speaking Reading Writing

Maite Aiaitui Kortabarria
Irakaslea

Arantzasuko Ama, 3 behea
943 53 36 57

20560 OÑATI (Gipuzkoa)
4sgoiena@gmail.com

www.4sgoiena.com

Herrian segurtasun eza handitzen ari dela dio Oñatiko EAJk

> Udal gobernuari ezer ez egitea kritikatu dio

"Azken asteotan beldurra eta kezka nabarmen handitu dira Oñatiko kaleetan. Lapurretak, lapurreta saiakerak, egoera susmagarriak... gero eta bizilagun gehiagok lehen pertsonan bizi dituzten esperientziak bihurtu dira". Halaxe dio Oñatiko EAJk komunikabideetara igorri duen prentsa oharak.

Eta Udalaren erantzuna ez dago behar den mailan, jeltzaleen ustez. "Udal gobernuari dago-kio ingurune segurua bermatzeko betebeharra, baina erreakzio eta neurri argien faltaren ondorioz, babesgabetasun sentsazio gero eta handiagoa sortzen ari da".

ARAZO POLITIKOA

Arazoa politikoa dela azpimarratu du EAJk. "Aspaldidanik, EH Bilduk jarrera anbigua du Ertzaintzarekiko, kontrakoa ez bada, eta jarrera horren ondorioz, gobernatzen ari den udalerrietan ez dago polizia-eredu zehatzik". Mesfidantza giro horrek erakundeen eta segurtasun-kidegoen arteko koordinazioa zailtzen du, jeltzaleen ustez.

Udalaren aldetik dagoen informazio eta gardentasun falta ere salatu du EAJk. "Herritarren eskariei –poliziaren presentzia handiagoa eta koordinazio hobea– ez zaiei erantzuten. Eta hori are larriagoa da, kontutan hartuta zaintza-kamerak ez daudela erabilgarri, eta gabaz ez dagoela udaltzain zerbitzurik". Herritarrek segurtasunez eta lasaitasunez bizi ahal izateko bermeak baino ez dituzte eskatzen, gaineratu dute.

Horregatik, talde jeltzaleak premiaz jokatzeko eskatu dio ual gobernuari. "Neurri argiak hartzeko eta Ertzaintzarekin, Udaltzaingoarekin eta gainerako segurtasun-kidegoekin koordinazio eraginkorra berrezertzeko eskatzen diogu EH Bilduri". Era berean, zaintza-sistemen funtzionamendua bermatzeko, eta gaur egun ez dagoen ordutegietan udaltzaingoaren presentzia berreskuratzea eskatzen du EAJk.

Oñatiko Klima eta Energia Plana prestatzen ari da Udala

> Inkesta labor bati erantzunez, parte hartzera gonbidatzen ditu herritarrak

Euskadiko Trantsizio Energetikoaren Legearen arabera, tokian tokiko Udalek herrira egokitutako Klima eta Energia Plana osatu behar dute. Klima aldaketari aurre egiteko eta energia-eredu iraunkorrako, eraginkorrako eta osasungarriago baterantz aurrera egin ahal izateko udal-ekintzak zehaztea da helburua.

Plan horrek hainbat neurri jasoko ditu, besteak beste, emisioak murrizteko, energia berriztagarriak sustatzeko, energia eraginkortasuna hobetzeko, mugikortasun iraunkorra bultzatzeko, klima aldakearen ondorioetara egokitzeko eta baliabide nahiz hondakinen ohitura arduratsuak sustatzeko.

Ildo horretan, Udalak uste du herritarren parte-hartzea funtsezkoa dela, planean Oñatin bizi direnen beharrak eta ikuspegia islatzeko. Horregatik, udalak animatu egiten ditu herritarrak inkesta labor bati erantzunez, klima aldaketari, mugikortasun iraunkorrari eta energiari buruzko beraien iritzia, ideiak eta lehentasunak azaltzera. Ondoko QRak eramango zaitu inkestara.

INKESTA

Aldaketa zurekin hasten da. Animatu parte hartzera!



▲ Goiko QRak eramango zaitu inkestara. Abenduaren 12ra arte egongo da zabalik. Inkestak anonimoak dira.

EAJk oso positibotzat jo du kale garbitzaileen aurreakordioa



EAJren udal taldeak "oso positibotzat" jo du Udalaren eta kale-garbitzaileen artean sinatutako aurreakordioa. Amaia Erostarbe bozeramaleak adierazi du, kale-garbitzaileen antolaketa-eskaerak onartzeko proposamena helarazi ziola gobernu taldeari, helburu argi batekin: greba saihestea eta udal langileen lan baldintzak hobetzea. "Prozesua nahi baino gehiago luzatu bada ere, eta lantaldeak ahalegin handia egin behar izan badu ere, garbi geratu da elkarriketa eta lankidetzaren direla aurrea egiteko bidea".

Gezalaga
Margoak

Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | gezalagamargoak@hotmail.com

ZURICH

M^a del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

Udalak 143.000 euro ordaindu behar dizkio Ulma Handling-i

> Auziak 2011ko erabaki bat du oinarrian

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazio Auzietako Salak hala ebatzita, Oñatiko udalak 143.087 euro ordaindu beharko dizkio Ulma Handling Systems enpresari. Auziak 2011ko martxoaren 10eko – EAJ zegoen agintean– Gobernu Batzarreko erabaki bat du oinarrian, udal gobernu taldeak azaldu duenez. "Garai hartan, Ulma Handling-ek Garagaltza auzoa 50 zenbakiko eraikina handitzeko aurreikuspena adierazi zuen, baina partzela horretako zati bat kutsatuta zegoenez, Urrutxuko zabortegia izandakoaren ondorioz, partzela zati hori zigilatze eta lixibatuen putzua eraikitze lanak Udalak bere kontura egitea erabaki zuen Gobernu Batzordeak, enpresak lan horiek egiteko lurra Udalaren esku uzten bazituen. Hirigintza Batzordearen txostenaz gain, udaletxean jasotako espediente administratiboan ez zegoen Gobernu Batzarrek hartutako erabakiaren zergatia azaltzen zuen bestelako dokumenturik".

2018an Urrutxu sektoreko P2 partzelako lur berdinketa eta zabortegi zati bat zigilatze lanak egiteko baimen eskaera egin zion Ulma Handling-ek Udalari. Gobernu Batzarrek onartu egin zuen 2018ko uztailaren 26ko bileran, eta, ostean, Udalak 2011ko Gobernu Batzarrean hartutako akordioa betetzeko eskaera egin zion Ulma Handling-ek Udalari. Gobernu Batzarrek, Udalaren aholkularitza juridikoak emandako txostenean oinarrituta, eskaera ez onartzea erabaki zuen.

Horren aurka, auzi errekurtsua jarri zuen Ulma Handling-ek, eta Udalaren aldeko sententzia egon zen 2020an. Epaitegiak ebatzi zuen Udalak ez zuela bete 2011ko martxoaren 10ean hartutako erabakia, baina ez zuen Ulma Handling-ek egindako obren kostua ordaintzera behartzen.

Enpresa ez zegoen ados epaiarekin, eta apelazio errekurtsua tartejarri zuen. Eta Justizia Auzitegi Nagusiak 2022an emandako epaian ebatzi zuen Udala behartuta zegoela Tokiko Gobernu Batzarrek 2011ko martxoaren 10ean hartutako erabakia betetzera, eta erabaki hori bere kabuz bete ez zuenez, Ulma Handling-ek egindako obren gastuak ordaindu behar zituela. Udalak kasazio errekurtsua aurkeztu zuen, baina Auzitegi Gorenak ez zuen tramitera onartu, eztabaidagai zen aferak kasaziorako interes objektiborik ez zeukala argudiatuta.

Beraz, Udalak Ulma Handling-i zor zion kalte ordaina finkatzeko prozesua zabaldu zen, eta oraintxe bukatu da. Udalak, zehazki, 143.087 euro ordaindu behar dizkio enpresari Autoa jasotako egunetik hasita hilabeteko epean.

Aitor Igartua izendatu dute ULMA Construction-eko zuzendari



ULMA Construction-eko Kontseilu Errektoreak Aitor Igartua oñatiarra izendatu du kooperatibaren CEO edo zuzendari exekutibo kargurako. Igartuak Aitor Ayastuyren leukoa jasoko du, azken honek laster ULMA Taldearen zuzendaritza nagusia gidatuko baitu.

Aitor Igartua –56 urte– ingeniari teknikoa da eta bere ibilbide profesional osoa egin du kooperatiba horretan, ardura eta kargu desberdinak betez. Egun, Iberiar Penintsulako, Mexikoko eta Esportazio merkatuen zuzendaria da. ULMA Constructionek 2.300 langile eta 22 filial ditu. Fakturazio bolumena 400 milioi eurotik gorakoa da eta bere merkatu nagusiak Espainia, Polonia, Italia, Brasil eta AEB dira.

Kimu-Urtxinek 'Singular Denda' errekonozimendua jaso du



Gipuzkoako Merkatarien Federazioak ematen duen 'Singular Denda' aitortza jaso du Kimu-Urtxin lora dendak. Toikian tokiko dendek lehiakortasuna hobetzea da *Singular Dendak* programaren helburua. Horretarako, hainbat formazio saio egiten dituzte saltzaileen konpetentziak, saltokia, erakusleioak eta komunikazioa hobetzeko, besteak beste.

Eguberri giroa Pake-Lekun

Pake Lekuko tabernan Marian Pereak egindako jaiotza jartzearekin murgilduko dira Gabonetako giroan Pake Lekun, abenduaren 7an. Hilaren 12an Pake Lekuko dantza taldekoak San Martin egoitzan (11:00) ariko dira. Hilaren 18an Gabonetako bingo berezia egingo da Pake Lekun (17:00). Eta hilaren 22an txistorrada izango dute 12:00etan. (Txistorra+edaria, 2€)

HARALD LINDER
ETXEETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LEHIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...

DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEAK
SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHAGO
OLAKUA 12 B 4 erd. - 20560 OÑATI - GIPUZKOA
695 78 91 04 - 943 04 47 77

Catalana Occidente
Mikel Egaña Urrutia
Aseguruak

Eskatu aurrekontua konpromezu gabe:

- Heriotza
- Autoak
- Bizitza
- Istripuak
- Ontziak
- Osasuna
- Etebeizitza
- Aurrezkia
- Laborantza

Helbidea: Moxon 5, behea
638 16 79 84
mikel.egana@agentes.catalanoccidente.com



Suhiltzaile zerbitzu euskalduna aldarrikatu dute

Urriaren 23an Gipuzkoako Foru Aldundiak urtea amaitu aurretik 113 lanpostu berri betetzeko deialdia luzatuko duela eman zen jakitera. Eta deialdi horren harira, Gipuzkoako suhiltzaileek beren kezka adierazi dute, lanpostuei ezarriko zaien euskara-eskakizuna dela-eta. "Izan ere, 113 lanpostu horietatik %34tan atzeratu egingo da euskara-eskakizunaren nahitaezko izaera, eta suhiltzaile zerbitzuari dagokionez, horrek esan nahi du eskaintzera doazen 68 lanpostuetatik 23k ez dutela derrigorrezko euskara-eskakizunik izango".

Suhiltzaileek gogorarazten dute beraien zerbitzua dela Euskal Herrian bere irati komunikazioetan euskara hutsean lan egiten duen zerbitzu bakarra, eta ia langilego guztia euskalduna izateak zerbitzu barruko harremanak, bilerak eta formakuntzak ere euskaraz egin ahal izatea bermatzen duela, eta herritarekiko zerbitzua %100ean elebiduna izatea ziurtatzen duela.

Suhiltzaile zerbitzuak egindako barne azterketan indargune bat bezala definitu zen zerbitzua euskalduna izatea, eta euskararik ez dakiten langileak sartzen badira, "atzera pausu handa" litzatekeela uste dute. Horregatik, Aldundiari eskatzen diote hartutako erabakiaren inguruko hausnarketa egitea, eta plaza guztiek derrigorrezko euskara-eskakizuna izan dezatela.



Bigarren eskuko azoka abenduaren 20an egingo da

Zenbait herritarren ekimenez Bigarren Eskuko Azoka egingo da abenduaren 20an. Goizeko 10etan hasi eta eguerdiko 14:00ak arte izango da azoka, Foruen plazan, eta edonork parte hartu ahal izango du bertan. Mahaiak eta aukiak ipintzeaz antolatzaileak arduratuko dira. Azokan posturen bat jarri nahi duenak **bigarre.azoka2023@gmail.com** helbidera idatzi behar du izena emateko.



Sare Feministak deituta, ehunka herritar atera ziren kalera indarkeria matxistaren aurka



Gabriela Wiener-ekin solasaldia

ABENDUAK 11, ELTZIAN, 18:00

Azaroaren 25aren inguruko egitaraua borobiltzeko, solasaldi interesgarria egongo da abenduaren 11n (Eltziako 3. solairuan, 18:00etan), Gabriela Wiener-ekin. Hegoamerikako kronista berrien taldeko idazle, kazetari eta aktibista feminista da. Generoaz eta feminismoaz idatzi ohi du bere kroniketan.

Saretzea, indarkeriari erantzuteko bidea

'Erasoen aurrean sareak ehundu' lelopean burutu dira azaroaren 25aren inguruan Udalak eta herriko sare feministak antolatutako ekitaldiak. Indarkeria matxistari aurre egiteko emakumeen arteko sareak sortzeak duen garrantzia azpimarratu dute. "Herriko komunitateetan –auzotar komunitateak, eskola-komunitateak, kirol edo kultur elkarteak, enpresa batzordeak, kuadrillak, Jabetze Eskola...– sustraituta egotea aukera paregabea da isolamendua ekiditeko, sareak sortzeko, eta indarkeriatik babesteko", adierazi dute. Oñatiko udalbatzak ere adierazpen instituzionala onartu du. Emakumeen Etxearen bitartez hurbiltasun sare lokalak indartzeko konpromisoa hartu du Udalak, bereziki egoera zaurgarrienetan dauden emakumeak konektatzeko.

AZAROAREN 25EKO TOPAGUNEA

Emakumion Etxetik Topagunea antolatu genuen **azaroak 25ean**, indarkeria matxisten kontrako egunean. *Erasoen aurrean sareak ehundu! aldarria izan dugu aurtengo lema.*

Gure topaguneek emakume artean saretzeko balio digute: indarkeriari aurre egiteko ezinbestekoak dira sareak. Plazan elkartu ginen eta artisau lan ezberdinak partekatu genituen, gure aldarrikapenekin kartelak egin genituen, kakorratzez egindako pankarta Etxeko balkoitik zintzilikatu genuen eta, batez, ere sareak ehundu genituen.

Indarkeria jasateko aukera gehiago ditugu emakumeok sarerik ez dugunean; herriko komunitateetan sustraituta egoteak babestu egiten gaitu eta ahalduzko aukerak biderkatzen ditu: auzotar-komunitate, eskola-komunitateak, kirol elkarteak, kultur-taldeak, enpresa batzordeak, kuadrillak edota emakumeentzako jabetze eskolak aukera paregabea dira isolamendua ekiditeko, sarea sortzeko, indarkeriatik babesteko. Baina, nork osatzen dute komunitate horiek? Nor uzten dugu bazterrean? Besteak beste, adineko emakumeak, landa-ingurune sakabanatueta daudenak, desgaitasuna duten emakumeak, atzeritik etorritako emakumeak eta bestelako baldintza gutxietsiak dituztenekin zein jarrera dugu? Emakume horiek babesteko modu onena da gure komunitateko ateak eurei ere irekitzea.

Emakumion Etxetik sinesten dugu **komunitateak emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitzen lagun dezakela**. Oñatin ditugun komunitate txiki horiek guztiek, banan-banan, euren aukera eta zailtasunetatik, berdintasunean oinarritutako harreman-inguruneak sortzeko konpromisoa hartzen badugu, indarkeriazko jarrerak prebenituko ditugu. Berriro diogu: auzokide, elkarte, enpresa edo lagun arteko harremanetan giltza bat dugu: indarkeria-egoerak gertatzen ari direla jakiteko. Egoera horien inguruko informazioa heltzen zaigun aldiro, emakume bat babesteko aukera daukagu eta gure esku dago aukera hori baliatzea. Nola? Emakumea entzunez, sinesten dugula adierazita eta epaitu barik.

Bide horretan erreferentziazko baliabide publiko berri bat izango dugu udaberritik aurrera Oñatin: Emakumion Etxia. Lau printzipioren baitan herri osoari ekarpena egitera dator: begirada komunitarioa, feminista, ahalduzko eta intersektionala.

Indarkeria matxistari aurre egitea izango da Etxiaren helburu nagusietako bat. Nola egingo du hori? Indarkeriari aurre egiten diogun emakumeak izango gara protagonista; baina, Etxian, protagonistak bezain garrantzitsuak izango dira bidelagunak. Oñatiko komunitate txiki horietan guztietan (eskolan, elkarteetan, enpresan, familian, lagun-taldeetan) indarkeriari aurre egiteko konpromisoa hartu nahi duen herritar oro Etxekide izango da.

Elkarrekin eraikiko dugu Etxia. **Izan parte!**



INDARKERIA JASATEKO AUKERA
GEHIAGO DITUGU EMAKUMEOK
SARERIK EZ DUGUNEAN; HERRIKO
KOMUNITATEETAN SUSTRAITUTA
EGOTEAK BABESTU EGITEN GAITU
ETA AHALDUNTZEKO AUKERAK
BIDERKATZEN DITU



BIDE HORRETAN ERREFERENTZIAZKO
BALIABIDE PUBLIKO BERRI BAT IZANGO
DUGU UDABERRITIK AURRERA OÑATIN:
EMAKUMION ETXIA



Kakorratzez egindako pankarta egin genuen
Etxeko balkoian zintzilikatzeko.



Oñati Abesbatzak

60 urte beteko ditu 2026an

Ekitaldi sorta zabala prestatu dute urteurrena ospatzeko. Lehenengoa, **abenduaren 20an** Agustinoen elizan (19:45) emango duten Gabonetako kontzertua.

60urteko ibilbideak merezi du ospatzea, are gehiago koru-taldeen krisi garai honetan, eta horixe egin asmo du Oñati Abesbatzak, herritar guztiekin batera.

Horretarako, ekintza egitarau oparoa prestatu du –ikusirik ondoko orrialdean– hainbat kontzertu eta hitzaldi interesgarriekin. Berez, datorren urtean –2026– izango da urteurrena, eta, hain zuzen ere, datorren urteko udazkenean izango dira kontzertu nagusiak, baina aurretik ere izango da bestelako ekitaldirik. Hasteko, hil honetan bertan, abenduaren 20an, Agustindarren elizan (19:45) emango duten Gabonetako kontzertu berezia, bide batez, abesbatzaren gaur egungo zuzendari Mirengu Plazaolak eginkizun horretan 10 urte bete dituela ospatzeko balioko duena.

60 URTEKO IBILBIDEA

Oñatz elkartearen baitan sortu zen Oñati Abesbatza 1966an, 'Coral Oñatz' izenarekin, eta izen horrekin parte hartu zuen,

esaterako, Tolosako abesbatzen lehiaketan 1969, 1971, 1972 eta 1974an. *Irrintzi* otxotea izan omen zen abesbatzaren ernamuina, eta Patxi Anduaga laterandarra aurreneko zuzendaria. Hau Estatu Batuetara destinatu zutenean, Imanol Muruak hartu zuen batuta, eta berak eraman zuen koruaren gidaritza hurrengo 40 urteetan (1968-2008). Loli Ordokik hartu zion erreleboa, 8 urtez, eta 2015az geroztik Miren Gurutze Plazaola arduratzen da musika arloko zuzendaritzaz.

KONTZERTUAK, DISKOAK ETA ARGITALPENAK

60 urteko ibilbideak askorako ematen du, eta luze joko luke den-denak aipatzeak. Esan beharrik ez dago Aita Madinaren musikak leku berezia izan duela beti Oñati Abesbatzaren erreperitorioan, beste euskal musikagile batzuk ahaztu barik. Azpimarratzekoa da, gainera, azken aldian *Vivaldi*, *Bach*, *Mozart*, *Rheinberger* eta *Fauré*-ren obrak ere abestu dituztela, Bergarako Orfeoia erekin

batera, herri mailako ospakizun tradizionaletan (Kopusa, Salbea...), ekintza herrikoietan (auzo-jaietako meza eta kontzertuak), eta humanistiko-sozialetan (San Martin egoitzan, Aita Mennin, Arantzazuko *Elkarrekin Bila...*) parte hartzeari muzin egin gabe.

Diskoak ere grabatu ditu: Madinaren *Arantzazu Poema Sinfonikoa* (1983), Ciutat de Barcelona orkestrarekin, eta *Lauda Sion* (1997), Madinaren omenez. Azpimarratzekoa era berean, herriko musikagile handien (Aita Madina, Jose de Azpiazu, Julian Sagasta, Luis Mallea, Antonino Ibarrondo) biografiak eta beraien partiturak katalogatu eta argitaratzen egin duen lan bikaina, herriko ondareari ekarpen baliotsua eginez.

ORAINA ETA ETORKIZUNA

Gaur egun 45 kidek osatzen dute Oñati Abesbatza, eta espero dute 60. urteurreneko ospakizun hau mugari izatea jende gehiago erakartzeko eta etorkizunera begira proiektua sendotzeko.*

60. urteurreneko EKITALDI EGITARAUA

• **Abenduak 20** / Agustinoetan 19:45

Gabonetako kontzertua

50. urteurrenari hasiera emango dion kontzertua. Mirengu Plazaolak 10. urteurrena beteko du Oñati Abesbatzaren zuzendari lanetan.

• **Martxoak 12** / Agustinoetan, 19:30

Entsegu irekia

Abesbatzaren entsegu irekia, taldearen funtzionamendua herritarrei zabaldu eta kide berriak erakartzeko.

• **Martxoak 14** / Bidaurretan, 19:30

SUHAR abesbatzaren kontzertua

Esteban Urzelai oñatiarrak zuzentzen duen SUHAR gizonezkoen koruaren emanaldia.

• **Martxoak 26** / Agustinoetan 19:30

Elkartrukeko kontzertua

Oñati Abesbatzak Martuteneko *Ibaiertz* abesbatzarekin egingo duen elkartrukeko kontzertua.

• **Apirilak 21** / Kultur etxean, 19:30

Hitzaldia

'Oñati Abesbatzaren historia', Jose Antonio Azpiazu historialariaren eskutik.

• **Apirilak 28** / Kultur etxean, 19:30

Hitzaldia

'Cerebro y música'. Gurutz Linazasoro neurologoaren hitzaldia, musikak garunean duen eraginaren inguruan.

• **Urriak 17** / Bidaurretan, 19:30

60. urteurreneko kontzertu nagusia

Oñati Abesbatzaren kontzertua. John Rutter-en *Requiem*-a eta euskal abestiak, Madinarenak bereziki. Koruko kide ohien parte hartzearekin. Organoa eta 5 instrumentuko orkestra txikiaren laguntzarekin.

• **Azaroak 22** / Santa Ana antzokian

Oñatiko Musikegunak: Jon Mestre piano-jolea eta Oñati Abesbatza

Jon Mestre Arzuaga piano-jole gaztearen eta Oñati Abesbatzaren emanaldia. *Rachmaninoff*-en 2. kontzertua joko du Mestre. Ondoren, Jose Mari Arzuaga –Jon Mestreren aitona– musikari oñatiar gogoratuaren lanak abestuko ditu Oñati Abesbatzak, pianoz lagundurik. Lanak pianorako egokituko dira emanaldi berezi honetarako.



MIRENGU PLAZAOLA
Oñati Abesbatzako zuzendaria

Osasuntsu dago
Oñati Abesbatza,
baina ahots
gehiago ere gustura
hartuko genituzke



60urteko ibilbidean lau zuzendari izan ditu Oñati Abesbatzak: Patxi Anduaga, Imanol Murua, Loli Ordoki eta Miren Gurutze Plazaola. Azken honek 10 urte bete ditu zuzendaritzan, eta gogotsu dago urte berezi honi ekiteko.

Oñati Abesbatzaren 60. urteurrena, zure 10.a zuzendaritzan... Berezia izango da 2026a, ezta?

Bai, duela hamar urte, zuzendaritza hartu nuenean, pittin bat behera etorrita zegoen Oñati Abesbatza, eta orain berriz ere gorantz doala eta osasuntsu dagoela ikustea oso pozgarria da, eta ilusio handia dugu 60. urtemuga ospatzeko, herriarekin batera.

60. urteurreneko kontzertu nagusia datorren urteko urrian izango da, baina, beste hainbat ekitaldi ere izango da urtean zehar. Lehenengoa, abenduaren 20an, Agustinoen elizan (19:45) emango duzuen Gabonetako kontzertua?

Bai, urtero egiten dugu Gabonetako kontzertua Agustinoetan. Emanaldi oso kuttuna izaten da guretzat, etxean sentitzen garelako, eta aurtengoa pittin bat bereziagoa izango da. Azken hamar urte hauetako kontzertuetan abestu izan ditugun Gabon giroko kantarik ederrenak eskainiko ditugu.

Datorren urtera begira, kontzertuak, hitzaldiak, elkartrukea... Ekitaldi desberdinak, bariatuak antolatu nahi izan ditugu, herritar guztiei irekiak. (Ikusi ondoko egitarauan).

Nola dago Oñati Abesbatza gaur egun?

45 gizon-emakume gara eta osasuntsu dagoela esango nuke. Hala ere, gustura hartuko genituzke ahots berriak, batez ere gizonezkoenak, baina baita emakumeenak ere. Zenbat eta jende gehiago egon, gauza desberdin gehiago egiteko aukera izango dugu.

Nor animatuko zenuke Oñati Abesbatzako kide izatera?

Edonor. Ez da beharrezkoa musikako ezagutza edukitzea. Belarria hezi egiten da, eta ahotsa ere bai. Martxoaren 20an entsegu irekia egingo dugu eta animatu egin nahi ditut herritarrak bertara joan daitezen, gure dinamika ikusi eta, animatzen badira, gurekin kantuan egitera.

Zergatik kantuan egin? Zer ematen du abesbatza bateko kide izateak?

Kantuan egitea osasungarria da. Hala diote adituek. Buru osasunerako ona da, depresioak uxatzen ditu, estresa gutxitzen... Sozializatzeko ere balio du. Oñati Abesbatzean oso giro ona dugu gure artean, eta kantuan egiteaz gain, ondo pasatzen dugu; tarteka irteerak ere egiten ditugu beste herri batzuetara eta ederto pasatzen dugu. Probatzen duena geratu egiten da.

Zenbat entsegu egiten dituzue?

Astean bi, astelehen eta ostegunetan, Agustinoetan (20:00-21:30).

ERAKUSLEIHO LEHIAKETA

abian da

Epaimahaiaren hiru sari nagusiez gain, **Herritarren** eta **Haurren** sariak emango dira aurten ere, **1.800€** guztira

Udaleko Sozioekonomia sailak antolatuta, Oñatiko XVIII. Erakusleiho lehiaketa egingo da aurten, abenduaren 9tik 31ra bitartean. Herriko denda eta zerbitzu guztiei luzatu zaie lehiaketan parte hartzeko gonbita. Azaroaren 28ra arteko epea zuten izena emateko eta, beraz, ez dakigu zenbatek parte hartuko duten, baina udalaren webgunean (www.oñati.eus) atal bat prestatuko da bozka eman ahal izateko eta bertan egongo dira ikusgai lehiaketan parte hartuko duten saltoki guztien erakusleihoak.

BOST SARI

Iaz bezala, aurten ere bost sari emango ditu Udalak. Alde batetik epaimahaiak erabakitako hiru sari nagusiak, 500€, 300€ eta 200€-koak. Balorazioak egiterakoan **konposizioa**, **argiztapena**, **koloreak** eta **originaltasuna** dira kontuan hartuko diren irizpideak. Erakusleihoan denda-zerbitzuaren ohiko produktuak jarri beharko dira.

Hiru sari horiez gain, **Herritarren** saria (500€) eta **Haurrena** (300€) ere emango dira. Herritarrena aukeratzeko bozketa Internet

bidez egingo da, udalaren webgunean (www.oñati.eus) propio egokituko den leihoan. Orrialde honetan ipin dugun QRak eramango zaitu bertara. Lehiaketan parte hartzen duten erakusleihoetan ere jarriko dira bozka eman ahal izateko QRak. Herritar bakoitzeko bozka bakarra onartuko da. **Abenduaren 17a** (14:00) da bozka emateko azken eguna. Bozka ematen duten herritarren artean 100€-ko erosketa bonua zozkatuko da, herriko saltokietan gastatzeko.

Haurren saria 5eta 12 urte arteko gaztetxoek botoz erabakiko da. Horretarako, orrialde hauetan ikus daitezkeen bozka-txartelak bete eta Txaloka ludotekan edo Gaztelekuko Sotoan eta Kuboan egongo diren hautetsontzietara eraman behar dira, abenduaren 17a (14:00) baino lehen. Bozka ematen dutenen artean 100€-ko erosketa bonua zozkatuko da.

Lehiaketan parte hartzen duten erakusleihoek abenduaren 11rako prest egon beharko dute. Udalak 50€-ko laguntza emango dio parte hartzaile bakoitzari, materiala eta argiztapena ordaintzen laguntzeko.

100€-ko bi sari

100€-ko erosketa bonu bana zozkatuko da **Herritarren** eta **Haurren** sarien bozketan parte hartzen duten herritarren artean

HERRITARREN saria

Internet bidez bakarrik bozkatu ahal izango da, udalaren webgunean. Ondoko QRak eramango zaitu bertara. Azken eguna abenduak 17 (14:00etan).



HAURREN saria

5-12 urteko haurrek parte har dezakete. Orri hauetan dauden bozka orriak bete eta Txaloka ludotekara edo Gaztelekura eraman behar dituzte abenduaren 17a (14:00) baino lehen.

> IAZKO SARITUAK



Txokolateixak irabazi zituen iaz sari nagusia eta haurrena. Herritarren saria **Kimu-Urtxin** loradendak jaso zuen. Epainahaiaren 2. saria **Barue** interiorismoak jaso zuen eta 3.a **Andrea Azkoaga** interiorismoak.

OÑATIKO XVIII. ERAKUSLEIHO LEHIAKETA

Haurren saria hautatzeko orria

5 eta 12 urte bitarteko Oñatiko haurrei zuzendua

Nire botoa erakusleihen honi ematen diot:

SALTOKIAREN IZENA: _____

NIRE IZEN-ABIZENAK: _____

TELEFONOA: _____

SARIA

Botoa ematen duten haurren artean 100 euroko erosketa-bonua zozkatuko da

DATUEN TRATAMENDUA

☐ ONARTZEN DUT . Jakinarazten dizugu isilpean mantenduko ditugula ematen dizkiguzun datu pertsonalak, eta datu horiek Oñatiko Udaltzaitegiaren titulartasuna eta ardurapeko fitxategi batean sartuko ditugula, OÑATIKO XVIII. ERAKUSLEIHO LEHIAKETAko Haurren sariaren hautaketan eta zozketan erabiltzeko. Datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen araudia betez. Datuak Babesteko Oinarriko legeak espresuki aitorzen duen ikusteko, zuzentzeko, kentzeko eta errefusatzeko eskubidea izango duzu, horretarako Oñatiko Udaltzaitegiaren Sozioekonomia sailarekin harremanetan jarrita: Oñatiko Udala. Foruen Enparantza 1, Oñati.



OÑATIKO XVIII. ERAKUSLEIHO LEHIAKETA

Haurren saria hautatzeko orria

5 eta 12 urte bitarteko Oñatiko haurrei zuzendua

Nire botoa erakusleihen honi ematen diot:

SALTOKIAREN IZENA: _____

NIRE IZEN-ABIZENAK: _____

TELEFONOA: _____

SARIA

Botoa ematen duten haurren artean 100 euroko erosketa-bonua zozkatuko da

DATUEN TRATAMENDUA

☐ ONARTZEN DUT . Jakinarazten dizugu isilpean mantenduko ditugula ematen dizkiguzun datu pertsonalak, eta datu horiek Oñatiko Udaltzaitegiaren titulartasuna eta ardurapeko fitxategi batean sartuko ditugula, OÑATIKO XVIII. ERAKUSLEIHO LEHIAKETAko Haurren sariaren hautaketan eta zozketan erabiltzeko. Datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen araudia betez. Datuak Babesteko Oinarriko legeak espresuki aitorzen duen ikusteko, zuzentzeko, kentzeko eta errefusatzeko eskubidea izango duzu, horretarako Oñatiko Udaltzaitegiaren Sozioekonomia sailarekin harremanetan jarrita: Oñatiko Udala. Foruen Enparantza 1, Oñati.



OÑATIKO XVIII. ERAKUSLEIHO LEHIAKETA

Haurren saria hautatzeko orria

5 eta 12 urte bitarteko Oñatiko haurrei zuzendua

Nire botoa erakusleihen honi ematen diot:

SALTOKIAREN IZENA: _____

NIRE IZEN-ABIZENAK: _____

TELEFONOA: _____

SARIA

Botoa ematen duten haurren artean 100 euroko erosketa-bonua zozkatuko da

DATUEN TRATAMENDUA

☐ ONARTZEN DUT . Jakinarazten dizugu isilpean mantenduko ditugula ematen dizkiguzun datu pertsonalak, eta datu horiek Oñatiko Udaltzaitegiaren titulartasuna eta ardurapeko fitxategi batean sartuko ditugula, OÑATIKO XVIII. ERAKUSLEIHO LEHIAKETAko Haurren sariaren hautaketan eta zozketan erabiltzeko. Datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen araudia betez. Datuak Babesteko Oinarriko legeak espresuki aitorzen duen ikusteko, zuzentzeko, kentzeko eta errefusatzeko eskubidea izango duzu, horretarako Oñatiko Udaltzaitegiaren Sozioekonomia sailarekin harremanetan jarrita: Oñatiko Udala. Foruen Enparantza 1, Oñati.



'Gabonetan zortean Oñatiko dendetan dago!'

TXANDAK ia 5.000 euro banatuko ditu Gabonetako zozketa berezian

'Gabonetan zortea Oñatiko dendetan dago!' lelopean TXANDA dendarien elkarteak 4.970 euro banatuko ditu bezeroen artean. Abenduaren 1ean hasi eta urtarrilaren 5era bitartean —edo zenbakiak agortu bitartean—, Oñatin egindako erosketa bakoitzarekin Gabonetako zozketan parte hartzeko zenbakiak banatuko dira.

Bezeroaren zenbakia Erregeetako Loteriako lehen hiru zenbaki sarituetako batekin bat badator, 1.000€, 600€ edo 400€ irabaziko ditu, hurrenez hurren. Eta bezeroaren zenbakiaren azken hiru digituak lehen zenbaki sarituaren azken hiruekin bat badatoz, 30€-ko sari bat jasoko du. Denera, 99 sari txiki banatuko dira. Sari banaketa urtarrilaren 10ean egingo da, eguerdiko 13:30etan, Santa Ana antzokian. Gainera, Txandako saltokiek poltsa berdinak banatuko dituzte, 'Oñatin erostiatik' eskerrak emanez bezeroei.

KALE-ANIMAZIOA

Kaleak girotzeko bi ekintza antolatu ditu TXANDAK abendurako. Hala, hilaren 12an **ZIRKUN ZIRKO** kalejira musikatu egongo da. Eta hilaren 19an **UNICORNS** taldea ibiliko da herriko kaleak girotzen. Biak ala biak Santa Ana aretotik abiatuko dira 18:00etan, eta herriko kaleetan zehar ibili ostean, plazan emango diote amaiera.



'Zuk erosi, guk saritu!' kanpainan sarituak

Urriaren 20tik azaroaren 19ra bitartean erosketak Oñatin egin zituzten bezeroen artean 500€-ko sari bat eta 200€-ko 10 sari zozketatu zituen TXANDAK. Azaroaren 22an egin zen sari banaketa. Argazkian daude saritu gehienak dendarien elkarteko ordezkariak.



Hamahiru herritarrek jaso dute Gipuzkoako Odol Emaileen Elkartearen aitortza

Aitor Ugaldek (50 odol emate), Rosa Reinstadler eta Ikerne Urteaga (40), eta M^a Carmen Bikuña, Juan Cruz Kortabarria, Iñigo Diaz, Patricia Dorado, Alazne Korta, M^a Jose Mendizabal, Amaia Osa, Garikoitz Rivera, Asier Urzelai eta Edurne Galdosek (25), jaso dute aurten Gipuzkoako Odol Emaileen elkartearen aitortza, beraien eskuzabaltasuna eta konpromisoa eskertuz. Oñatiko odol emaleen elkartearen izenean odola ematearen garrantzia eta beharra gogorarazi zituen Lorea Biainek, eta dei berezia luzatu zien gazteei. "Azken urteotan gora egin du ateratako odol poltsen kopuruak, baina, aldiz, beheraka doa odol emaile berrien datuak —aurten 14 soilik— eta kateak jarraitu egin behar du. Ekitaldian gogoan izan zuten ekainean zendu zen Pili Irazabal, urte askotan Oñatiko odol emaleen elkartearen lanean jardundakoa.

Eduardo Korkostegi eta Anttoni Gomez omendu dituzte

Santa Zezilia egunarekin batera, Eduardo Korkostegi Urzelai eta Anttoni Gomez Ruiz de Bergarak omenalditxoak jaso zuten parrokiako koruei urteetan egindako ekarpen bikaina eskertuz. Korkostegik 65 urte daramatza koruan, eta Anttonik 40 bat. Bi koruen artean urtean 200 bat aldiz abesten dute elizkizunetan.



● OÑABIKE
est. 95

Bi album ilustratu berri plazaratu dituzte Igartua eta Mendiola ama-alabek



Lukene Igartua eta Izar Mendiola, ipuinak eskutan

Beraien ahizpa eta izeba Mila Igartua zenaren omenez, iaz sortu zuten 'Mila' bildumaren barruan bi ipuin ilustratu berri plazaratu dituzte Lukene Igartua eta Izar Mendiola ama-alabek. Hala, iaz harrera bikaina izan zuten *Txorimaloarena* eta *Haitzeko zuloarena* ipuinei, beste bi ale gehitu zaizkie orain: **Koloreena** eta **Torreko Zubiarena**. Iaz bezala, Lukenek idatzi ditu ipuinak, eta Izar arduratu da ilustrazioez eta maketazioaz.

Koloreena ipuina asmatua da eta adimen eta mugikortasun urritasuna duen mutiko baten eta eskolako kideen istorioa kontatzen du. Txangoan doaz Arantzazura, bertako txokoak koloreen bidez ezagutzera, eta koloreak bezala umeak ere anitzak direnez, aniztasun horri naturaltasunez aurre egiten dakitela erakutsiko dute.

Torreko Zubiarena, berriz, ahozko tradizioetik datorren ipuina da, Oñatiko baserrietan belaunaldiz belaunaldi transmititu izan dena. Kasu honetan, ama eta amama Doloresek Dolaetxeko sukaldean kontatzen zien ipuinaren moldaketa egin dute.

Durangoko azokan, abenduaren 21ean egingo den Oñatiko artisauen azokan, eta herriko liburu dendetan eskuratu ahal izango dira ipuinak. Igartua-Mendiolarrek udal kultura sailaren dirulaguntza jaso dute.

'PRIMI EROSTARBE. ITZALARI DANTZA' liburua plazaratu du Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak

- > Araotzen jaio zen panderojole, irrintzilari eta koplariaren bizitza jasotzen du
- > Itziar Ugartek idatzi du liburua

Emakume aparta izan zen Primi Erostarbe Etxeberria (Oñati, 1907 - Donostia, 1995). Ausarta, kementsua, alaia eta talentuduna. Artean plaza publikoa, goi eta behe, gizonek hartua zutenean, aurrera egin eta giro hartan bere lekua egitea lortu zuen lehen emakume trikitilarietako bat izan zen.

Araotzen sortua, gurasoengandik ikasi zuen panderoa jotzen. Araba aldera, ardo bila, edo mendira, ardiak zaintzera bidaltzen zutenean, pandero zahar bat eramaten omen zuen eta, hura jo eta abestu bitartean, bere itzalarekin dantzari aritzen zen. Hortik liburuaren izenburua.

18 urterekin Martutenera joan zen, taberna batean lan egitera, *baulean* bi pandero hartuta. Bertan ezkondu eta handik aurrera Donostian bizi izan zen. Bost seme-alaba izan zituen.

Pasaian atera zen aurreneko plazara, 1945. urtearen bueltan, eta gerora 37 urtez ibili zen plazarik plaza, batez ere Aiako Balendin Aldalur *Zialtzeta* trikitilariarekin, baina garaikide izan zituen soinu-jole esanguratsu gehienekin, artean gizonezkoak denak, aritu zen kantuan, irrintzik eta panderoa jotzen. Euskal Herri osoan plaza eta aretotan ez ezik, Logroño, Santander, Málaga, Madril eta Parisen ere aritu zen. *Goizaldi* eta *Argia* dantza taldeekin ere ibili zen 20 urtez, eta hauen eskutik Europako herrialde batzuetan ere (Suitza, Alemania, Austria...) jo zuen. 1970eko hamarraldia izan zen urrezko aroa Primirentzat, eta urte batean 80 emanaldi egitera ere iritsi zen.

Bazen nor, Primi, eta horren erakusle da Euskal Herriko lehenengo trikiti txapelketa antolatu zenean (1970) lau epaimahaikideetako bat izan zela, Joxean Artze, Xabier Lete eta Jose Maria Altunarekin batera. Primi bera izan zen trikiti txapelketa batean parte hartu zuen lehen emakumea.

Baina, batez ere, irrintzilari gisa nabarmendu zen Primi.



Ezkerrean, liburuaren azala. Eskuman, Itziar Ugarte Irizar idazle eta kazetaria aurkezpen ekitaldian, liburua eta CDa eskutan dituela



Irrintzia edo lekaixoa egin bitartean hitzak sartzeko abilezia zeukan, eta hiru urtez jarraian (1970, 1971 eta 1972) irabazi zuen irrintzi txapelketa. Atzerrira joaten zenean ezterrira begiratu nahi izaten zioten, ezkutuan gailu elektronikoren bat ote zuen susmopean.

Bi disko labor ere grabatu zituen Jesus Piquer akordeoilari donostiarrarekin. 1982an utzi zion jendaurrean jotzeari, senarra gaixotu zitzaienean. Oñatiko udalak 4.000 euroko laguntza eman dio Euskal Herriko Trikitixa Elkarteari, liburu-CDa argitaratzeko.





Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorleraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.:943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



Oñatiko Udala



Foru Aldundia

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Publizitatea:

Iñigo Arregi

Diseinua eta Maketazioa:

Iñigo Arregi eta Jabier Erostarbe (azala)

Kolaboratzaileak:

Roberto Altuna, Gaztelekua
Natur Eskola eta udaleko Berdintasun saila

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik

Artistei esker, bizi

Iñaki Idigoras Igartua

Herri zapaldua gara. Zatikatua ere bai. Nahiko lan badaukagu egora latz hau kudeatzen. Zazpi ahizpa, hiru taldetan, elkarri bizkarra emanez, ahaztu arazitako amaren ondarea galbidean. Mingarria da egoera: odolusten ari gara. Egoera honek noski, eragin egiten du gure osasun mentalean. Osasuna, osotasuna baita. Zatiak, puskak, gaixotasuna: eritasuna. Agian horregatik hainbesteko zaintza garaiotan. Erizain, hainbesteko kamera, polizia eta ertzain biolento.

Gauzak horrelaxe daude, dio Gorkak, baina horrela ez direla. Nor ez dator bat? Artista euskaldun guztien aldeko aldarria da hau, musikan zentratuko banaiz ere. Soinua, doinua, erritmoa, tonua... eta hitzak. Batez ere hitzak. Ez daitezela gal, ez ditzagun jan. Artista, zerbait bada, sentibera da. Arras ongi sentitzen du bere eta inguruko errealtatea, emozioen bidez. Animalia emozionala naiz.

Sentitzen dudana, nola ez da ba zentzudun izango? Errealtatearen ahalik eta irudirik fidelena daukat eta! Hitzak berak dio: zuntzuduna, zentzuen bitartez sentitzen duena. Pikulitan dago, arrazoiarekin sentitzen dutenen (GKS datorkit burura) zentzu alienatua! Arrazoa zentzuzkoa izateko, sentitu egin behar dugu lehenik: emozioei arreta eskaini. Sinpleki zerrendatuta, hauek dira emoziorik esanguratsuenak:poza, tristura, haserrea eta BELDURRA.

Euskaldunok, mendez mende bizitako ankerkeria guztien ondorioz, beldur gara, akatuko ote gaituzten. Ulertzekoa da, eta errealista ere bai. Irakurri bestela UEMaren eguneroko "Euskararen Hemeroteka" Telegrameko kanala.

Markatu nau, eta salbatu, Anariren ametsen eraiste neurtuak: "zure buruaz beste... bat egitea"-k. Eztarria korapildu egiten zait oraintxe ere. Bizipoz gabe egotetik, argi izpi bat ikustera... eta haren atzetik aritzea, bidelagunik aproposenez, lehen balearrantzaleak artizarraren atzetik bezalaxe.

Bidai psikologiko zabal eta sakonak egiten ditut gure musikagileek lagatako ondarearekin.

Joan zirenak ere gurekin daude, gogoan.

Belaunaldi berriak, gogoz. Denak eskura, musu truk, plataforma digitalen algoritmoiei esker. Erabili, beldurrik gabe Adimen Artifiziala. Garaiotako baliabideak dira, betiko beharrak asetzeko. Ez batekin maitemindu. Denek daukate baliorik, bakoitza berean da maisu, maitale.

Fin batean, gizakiok konplexuak izan baino, akonplexatuak gaudelakoan nago. Ni bai behintzat. Oskol hori nola eraiki dudan ezagutzeak, egun horrela zergatik aritzen naizen ulertzeak, aukera eman dit komeni zaidan etorkizuna marrazteko. Iruñeako Nabarralden ikasia dut hiru denborak elkar bizitzan nola enkajatzan duten: iragana ezagutu, oraina ulertzeko, etorkizuna proiektatzeko. Kontzientzia nazionala lantzen dugu, ondarea, memoria, nortasuna, askatasuna fin baten. Aurrera noa eta harro nago. Jexux, Angel, Iñigo, Mikel, Koldo, Marian, Beñi, Mirari, Iñaki, Patxi, Rafa... izaki biblikoak. Orreagako herri existentzian, Asisko, Aritz, Iñigo... txikitik bihotz handiz eta buru argiz.

Nahiko nuke ere Herri bezala "aurrera goaz eta harro gaude" ahobatez esatea. Atzoko elurrak baketuko al ditu gure barne su eta liskarrak! Alderdien keriak (zenbat funtzionario?) baztertuko al ditugu, eta bestelako antolakuntzak berreskuratu!

Fededun naiz Arantzazun. Garai latzetan Artistek ahobatezko elkarlanean eraikitako babesgune arantzatsuan. Gure izpiak hortik behar du etorri, topagunetik. Misteriotik. Pietateko etxe barrietatik.

Artistok, nire gara penaren musika banda zarete, eta zuen sormenarekin gure korapiloak askatzen jarraituko duzue. Gure terapia komunitarioa sustatzen, Latzenen kontzientzia ala infernuak izen bereko bloga betiko ARGIAN hasteko eta hazteko arnastu ninduen bezala.

Donostiako IZKALIn eta Arrasateko osasun mentalean kiskali dut barruko mamua, gestalt bat osotuz eneagramak markatu bidetik, Oihana, Maribel, Juanjo... artixan gora.

Ordainetan, Creative Commons CC0 da nire ondarearen lizentzia. Nahieran erabili dezazun. ULMA eta CAF-eko lankideei, zaintzagatik ere. Etxekook ere badakizue, maite zaituztedala.

Cartonajes Arregui, S.A.



- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

Ez da tabu, maitatzea.

Beldurrari, adorea, kemena, kuraia.
Elektrizitatea!

Gora gu ta gutarrak! Gora bihotzak!
Pro libertate patria gens libera state.

Eskertza

Joxe Mari Beitia (Gipuzkoako Elikagaien Bankua)

GIPUZKOAKO ELIKAGAIEN BANKUTIK gure ESKERRIK BEROENAK eman nahi dizkiegu azaroaren 7an eta 8an izandako Elikagai Bilketa Handian laguntza eman diguten guztiei, haien laguntzarik gabe ezigo baitzen bilketa aurrera atera.

Era Berean, eskerrak eman nahi dizkiegu BOLUNTARIOei, beraien laguntza ordain-ezinagatik; baita komertzio ezberdinetako langileei aurreko eguentan zein Elikagai Bilketa Handi egunean emandako erraztasunengatik.

Pago Uso, ASPANOGLekin

Miren Guridi (Pago Uso elkarte)

Irailaren 28an herri mailako plater tiraketa egin genuen, urtero bezala. Txapelketa hori aurrera eramateko bertako enpresek ere esku bat bota digute eta oso eskertuta gaude alde horretatik. Eskerrik beroena luzatu nahi dizuegu laguntza eman diguzuen guztioi.

Bestalde, jakitera eman nahi dugu, San Migeletako plater tiraketan batutako dirua ASPANOGLi elkarteari –Gipuzkoako Haur Minbizidunen Familien Elkarte– ematea erabaki dugula.

(Oharra): ASPANOGLi elkarteak bihotzez eskertu du Pago Usok beraien kausara bideratutako dohaintza bikainagatik. Hain garrantzitsua den diru finantzazioaz gain, ikusgarritasuna ematen laguntzeagatik, oraindik tabu den haur eta nerabeen minbiziaren kausari, eta ASPANOGLi egiten duen lanari, adin txikiko gaixoen eta beraien familien bizi maila hobetzeko.

» OHAR ETA DEIALDIAK «

1976an jaioetakoen kinttadia

1976an jaioetakoen kinttadia ospatuko da uztailaren 11n. Bazkaria Arantzazuko Hospederixan izango da eta bertaratzeko autobusa egongo da. Izen-emate epea, urtarrilaren 31. Bazkariaren kostua, 90€ eta ordainketa Laboral Kutxako ES46 30350170521700039255 kontuan. Izena ematerakoan izena eta bi abizenak idatzi behar dira. Animatu eta etorri lagun artean egun zoragarria pasatzera!. Ez itxaron hurrengoari! Harremanetarako helbidea: kinttadia1976@gmail.com

Ekain pailazoa Oñatin



Adi!!! Ekain pailazoa hautsak harrotzera dator!. Zirkuko bere maleta zaharra hartu eta Euskal Herriko hainbat txoko hankaz gora jarriko ditu bere pailazokeria, malabarismo eta jolasekin. Haur, gazte eta helduak barrez lehertu arte!.

Oñatin **otsailaren 1ean** gozatu ahal izango Ekain pailazoaren ikuskizun berrriaz, Antixena Gaztetxean, 17:00etan, Burrunda Faktoriak antolatuta. Sarrerak **abendua**ren **18an** jarriko dira salgai Mizke goxoki dendan.

'GOTZON ETXERA' Gabonetako ekitaldia



Oñatiko SAREk antolatuta, Gotzon Telleria preso oñatiarrari elkartasuna adiarazteko ekitaldia egingo da **abendua**ren **20an**, Bidebarrietako Errementari plazan, 12:00etan. Gotzonek 69 urte ditu eta Zaballako kartzelan dago, bigarren graduan, baina hirugarren gradua aplikatuz gero, kalean beharko luke. Gogoratu gaitz sendaezina duela oñatiarrak.

Oñatiko Inauteriak 2026 Entseguak hastera doaz



Abenduaren **9an** hasiko dira 2026ko otsailaren 14an ospatuko den Oñatiko Inauteria prestatzeko entseguak. Egun horretatik aurrera, martitzenero (19:00) eta zapaturo (12:00) egingo dira entseguak Eltzian. Aurten ere 2008an edo aurretik jaioetakoek parte hartu ahal izango dute. Entseguetan egingo da izen-ematea. Parte hartzaile kopurua mugatua izango da.

ARANBURU ALTZARIAK
Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

ESTILO GUZTIETAKO ALTZARIAK
LANPARAK, TAPIZAK, KORTINAK

MODA BEREZIA
Kale Barria, 12
Tel. Faxe: 943 71 62 40



>> EMANTZIPAZIO DIRU-LAGUNTZAK 2025. URTEKO BALANTZE TXIKIA <<

2025ean ere, Oñatiko Udaleko Haur eta Gazteria Sailok martxan izan dugu herriko gazteen emantzipazioari zuzendutako diru-laguntza lerroa. Urtero bezala, 18 eta 35 urte bitarteko oñatiarrek eskatu ahal izan dute laguntza hau, alokairu bidez ohiko etxebizitza lortu nahi duten gazteen gastuak arintzeko helburuarekin. Laguntza hauen bidez, gazteei emantzipazio-prozesuan laguntzea dugu helburu nagusi, baina baita alokairuen prezio altuei aurre egitea ere, eta ahal den neurrian prezio horietan eragitea ere. Horrela, urtez urte gazteei etxebizitza eskuratzeko eta udalerrian bizitzen jarraitzeko aukera errazten ahalegintzen gara.

Aurten, eta jada 11 urte daramatzagu programa hau aurrera eramaten, guztira 31 eskaera jaso ditugu. Egia esan, azken urteotan eskaera kopurua zertxobait jaisten ari dela ikusten ari gara, neurri handi batean Eusko Jaurlaritzak eskaintzen duen Gaztelagun programaren eraginez. Izan ere, diru-sarreraren eta emten dituen kopuruaren arabera, gure gazte askok laguntza hori eskatzera jotzen dute, eta horregatik, urtero eskaera batzuk bertara bideratzen ditugu. Aurten, orain arte, 7 gazte bideratu ditugu Gaztelagun programara, eta azken batzordean pasatuko diren beste 3rekin osora 10 emantzipazio

diru-laguntza onartuko ditu Eusko Jaurlaritzak.

Hala eta guztiz ere, gure ustez, Gaztelagun eta Oñatiko udal diru-laguntzen artean etxebizitza emantzipazioa lortu duten gazteen kopurua handia izaten jarraitzen du. Bi programak gazteen artean errotuta daude, eta urteotan argi ikusi dugu laguntza hauek eragin zuzena dutela gazteen emantzipazio aukeran. Aurten, guztira, Oñatiko Udalak 27.000 euro baino gehiago banatu ditu herriko gazteen emantzipazioan laguntzeko.



Bestalde, azken urteetako norabidera berriro bueltatuz, iaz alderantziz izan baitzen, nesken eskaerak mutilenak baino gehiago izan dira. Egun beraz, guztira, Gaztelagun eta udal laguntzak batuta, 25 neskek eta 16 mutilek eskatu

eta jaso dute laguntza.

Beraz, gure balorazioa oso positiboa da. Bere egunean gazteekin egindako parte-hartze prozesuetan jasotako eskaerei erantzuten ari garelako, eta ahal dugun neurrian, Oñatiko gazteen ongizatean eta bizi-proiektuen garapenean eragin zuzena izaten ari baikara.

Haur eta Gazteria Teknikaria

HAUR ETA GAZTERIA:

Neguko oporraldiko ekintzak



KUBOA

- **Abenduak 23:** Olentzero eta Mari Domingiren bila 17:00etatik aurrera.
- **Abenduak 26:** LH3 Arrikutz era irteera + pelikula Kuboan.
- **Abenduak 30:** LH5 eta 6 Iruñara irteera, izotz pista + salting.
- **Urtarrilak 2:** LH4koen eguna Kuboan.

TOPALEKUA

- **Abenduak 23:** Salting (Bilbo)
- **Abenduak 26:** pelikula gaztelekuan
- **Abenduak 30:** laser tag gaztelekuan
- **Urtarrilak 2:** izotz pista patinatzerara (Donostia)

GAZTELEKUA

- **Abenduak 7:** XXXI. Xake txapelketa
- **Abenduak 27:** Janus Lester (19:30)
- **Abenduak 29:** Magia jaialdia, Josu Zubia Magoaren eskutik. 18:00etan.
- **Abenduak 20:** Golzen 12.0 Santa Anan 17:00 eta 19:00etan.

Hondakinen sentsibilizazio kanpainak emandakoa

Hainbat nobedade ekarri ditu aurtengo ikasturteak: hezkuntza eskaintza eta orain arteko jardunaldiez gain, hondakinen sentsibilizazio kanpainari ere heldu dio Natur Eskolak. Sukaldean erabilitako olio aprobatu eta xaboa nola egin ikasteko aukera egon zen. Tailerrerako deialdia arrakastatsua izan zen, eta, jende asko parte hartu ezinik gelditu zenez, abenduan beste saio bat antolatzea erabaki da. Bestetik, hondakinek mundu mailan duten inpaktuaz jabetu ginen dokumental eta hitzaldi banarekin. Ondorio nagusia argi dago: erabilera bakarreko plastikoak murriztea urgentea da!

Nerea Elorza oñatiarraren hitzaldia

Abendura begira, Azore uharteetan bizi den Nerea Elorza oñatiarra han ikasi eta ikusitakoak kontatuko dizkigu Herritarren Esperientzia Partekatuetan. Ingurumen Zientzietan graduaduna ikasketaz, Azoreetako Sao Miguel uharterako Ponta Delgada zetazeoak begiztatzen egiten du lan *Picos de Aventura* enpresan.



Sukaldean erabilitako olioarekin xaboa egiten ikasteko tailerrak harrera oso ona izan du. Abenduan saio berria egingo da.



◀ Erabilera bakarreko plastikoak murriztea urgentea dela azaldu zuen Izaskun Zoritak, AZTIko ikertzaileak

► HERRITARRENTZAKO ABENDUKO EGITARAUUA

ABENDUAK 9 (asteartea):

Etxeko olio erabiliarekin xaboa egiteko tailerra

Helduentzat. Natur Eskolan (17:00).

*Plaza mugatuak. Izena ematea beharrezkoa da, abenduaren 8a baino lehen, natureskola@yahoo.es edo 943 71 64 04 telefonoan. Ekarri beharrekoak: etxeko olio erabilia (1l inguru), eskularruak eta 2 tetrabrik. Horietako materialen bat ez edukiz gero, lasai, Natur Eskolak utziko dizu-eta!



ABENDUAK 23 (asteartea):

Hitzaldia: 'Azoreetako zetazeoak: ekologia eta biodibertsitatea ezagutzen

Natur Eskolan (19:00).

Hizlaria: Nerea Elorza oñatiarra, ingurumen-zientzietan graduatua eta *Picos de Aventura* taldeko langilea. Haren hitzaldian, Azoreetako uretan ikus daitezkeen hainbat zetazeo espezie aurkeztuko ditu, eta haien ekologia eta portaeraren inguruko azalpen argigarriak eskaini. Halaber, gaur egun aurrez aurre dituzten erronka nagusiak aipatuko ditu, ikuspegi zabal eta ulerterrazean. Itsas biodibertsitatea hobeto ezagutzeko aukera paregabea izango da.



Nerea Elorza, zetazeoak ikusteko irteera batean.

Kolore eta usain ezberdinetako xaboiak egiteko aukera dago.



Eñaut eta Teju Arriaran, infantil mailako lasterketako lehen postuetan



Infantil mailako neske lasterketa

Kros festa San Martinen

Aloña Mendiko Atletismo sailak antolatuta, eskolarte mailako II. San Martingo Krosa jokatu zen azaroaren 30ean, Gipuzkoako klub ezberdinetako ia 200 neska-mutikoren parte hartzearekin. Etxeko korrikalariei dagokienez, Eñaut Arriaran nabarmendu zen, podiumeko hirugarren koskara igo baitzen Infantiletan. Bere taldekide Teju Arriaran 4. helmugaratu zen eta Ganex Martin 9. Nesken lasterketan Itziar Murgiondo (6.) eta Ada Villar (11.) izan ziren gure ordezkariarik onena. Alebin mutiletan Mattin Sarriegi (13.) izan zen gure atletarik azkarrena.

ZUZENDARITZA BERRIA

Aurtengo udaberrian erreleboa eman zen Aloña Mendiko Atletismo sailean. Zuzendaritzan 21 urte luze eman ostean, Juan Carlos Ugartek lekukoa pasa zion Mikel Ruiz buru duen guraso talde bati. "Eskerrik beroenak eman behar dizkiogu Juan Carlosi, hainbeste urtetan egindako lanagatik. Gaur hemen baldin bagaude, berari esker da", adierazi zuen Ruizek.

Ilusioz eta lanerako gogoz daudela aitortu zigun lehendakari berriak. "Bai, lantalde polita osatu dugu direktiban, gurasoak ere laguntzeko prest daude, eta itxura polita hartzen diot atletismo sailari. Poliki-poliki joango gara. Oraingoz kros denboraldian zentratuko gara, otsailera arte, eta gero ikusiko dugu; atletismo pista barik, zaila da pista denboraldia prestatzea".

ONATIARRAK DONOSTIAKO MARATOIAN

Aloña Mendin ari den Tasio Gomez zumarragarra (2:37:40) izan zen gure ordezkariarik azkarrena Donostiako maratoian. Azpimarratzekoak baita ere, Xabier Luis (2:39:08), Urko Biain (2:52:54), Beñat Madariaga (2:54:05), Asier Murguzur (3:01:03), Miren Josune Bikuña (3:12:07) –Master 50 kategorian bigarrena–, Oier Iturricastillo (3:05:35), Iker Gorostiaga (3:28:08) eta Unai Arregiren (3:38:14) denborak.

MENDI IRTEERA / Abenduak 21

Jarindo (894m) eta Albertia (866m)

Aloña Mendik abendurako antolatu duen irteera Gipuzkoa eta Araba arteko mugan dauden mendietan izango da, Landatik abiatutako ibilbide zirkularrean. Jarindo eta Albertia tontorretatik pasako dira. Bertan egon zen gerrako frontea denbora luzez, eta horren lekuko dira han ikusten diren lubakiak. Ibilbideak ez du zailtasunik (16 km / +650m). Bukarera, urtea ixteko, bazkaria egingo dute Larrabea golfetan. Irteera goizeko 7,30etan, postetxean. Izen-ematea: abenduaren 11tik 18ra alonamendi.mendi@gmail.com helbidean, autobusa bete arte (50 leku).



Jarindo mendiko lubakiak

Gimnasia erakustaldia

Lide Osinagak entrenatzen dituen Aloña Mendiko gimnastek Gabonetako erakustaldia egingo dute abenduaren 15ean, Zubikoa kiroldegiko kantxa berdean (18:00). Guztira, 4 eta 15 urte arteko 115 gimnasta ariko dira.

Gabonetako kirol hitzorduak

SASKIBALOIA Abenduaren 26-27an kuadrillen arteko saskibaloitxapelketa jokatu da kiroldegian, Aloña Mendiko saskibaloitxapelketa sailak antolatuta.

ARETO FUTBOLA Abenduaren 29-30ean euskal presoen aldeko areto futbol txapelketa jokatu da kiroldegian, Oñatiko SAREk antolatuta. Hiru multzotan jokatu da: emakumezkoena, gizonezkoena eta mistoa. Izena emateko azken eguna, abenduak 21, Arrano tabernan (30€ taldeko).

SAN SILBESTREA Abenduaren 31n San Silbestre lasterketa herrikoia jokatu da 16:30etan. Aurretik (16:00) gaztetxoaren lasterketak egongo dira. Izen-ematea: 15:00etatik aurrera plazan.

Aimar Irizar irabazle Berrizen

ZIKLO KROSA Sekulako ziklo kros sasoia egiten ari da Ulma-Aloña Mendi taldeko Aimar Irizar Perez de Arenaza, kadete mailako txirrindularia. Azaroan beste bi garaipen lortu ditu, Gurb herriko (Bartzelona) Luis Vila memorialean, eta pasa den asteburuan Berrizen. Horiez gain, Ormaiztegin 3. sailkatu zen, Karrantzan 7. eta Vic-en 8. Bestalde, Unai Cuevak ere postu onak lortu ditu *Open* kategorian; Elgoibarren 4. postuan helmugaratu zen eta Lezaman 7.



Aimar Irizar, Berrizko helmugan

“ZEREN ZAIN ZAUDE AURREZTEN HASTEKO?”

- ZUNTZA 500Mb
- + 2 MUGIKOR-LINEA
- + 50 GB PARTEKATZEKO

34,90€/HILEAN
BEZA barne

Zatoz LIZKER INFORMATIKA
dendara, kontrata ezazu
zuntza + mugikor linea bat eta
aukeratu zuretzat opari hau



LIZKER
INFORMATIKA

ATZEKO KALE 32 | OÑATI, GIPUZKOA
TLF: 943 090 600



(BEZA barne). Eta aukeratu bi opari hauen artean: aire bidezko frijigailua edo DGTk homologatutako baliza (2026ko urtarritetik aurrera derrigorrezkoa izango da). Abendua 31ra arte, eskaintzan kontratua baduzu: 500 Mb-eko zuntza + 2 mugikor-linea, dei mugagabeekin eta partekatze 50 GB-rekin, hilean 34,90 €. Instalazioan 229,90 €-ko deskontua, 3 hilabeteko iraupen-konpromisoarekin. 5G abiadura, estaldura eta 5G terminalera lotuta. Existentziak amaitu arte. Ikusi gainerako baldintzak hemen: www.masmovil.es

MASMOVIL

AURREZTU, ETA KITO



Aequus Ensemble orkestra, San Migel parrokian emandako kontzertu batean. (Argazkia: Santi Mendiola)

Haydn eta Mozart Oñatin, Aequus Ensemble orkestra eta Ganbara Abesbatzaren eskutik

Aequus Ensemble orkestrak **Haydn** eta **Mozart** maisuen bi sinfonia handi joko ditu abenduaren 14an. Eta Ganbara Abesbatzarekin batera Haydn-en **'The Creation'** maisulana, abenduaren 28an. Biak ala biak Bidaurretan.

Goi mailako musika klasikoaz gozatzeko aukera bikaina izango dugu abenduan zehar Ganbara Faktoriaren eskutik. Hala, abenduaren 14an **'TEMPO'** izenburua duen kontzertua eskainiko du Aequus Ensemblek, Ganbara Faktoriaren baitan sortutako orkestrak. **Joseph Haydn** eta **Wolfgang Amadeus Mozart**, XVIII. mendeko bi konpositore handien sinfonia bana joko ditu.



HAYDN-en 101. SINFONIA

1794an Londresen idatzi zuen obra hau, *'The Clock'* izenez ere ezaguna dena, bigarren mugimenduko erritmo bereziaren ondorioz, erloju baten tik-tak soinua gogorarazten baitu.

Sinfonia hau izugarri arrakastatsua izan zen bere garaian; Haydn-en umorea, oreka formala eta orkestrazioaren argitasuna bikain uztartzen ditu. Azken mugimenduan energia eta bizitasuna dira nagusi, maisutasun konpositiboaren erakusgarri.

MOZARTen 40. SINFONIA

1788an idatzi zuen eta bere sinfonia dramatiko eta ezagunenetakoa bat da. Tonu minorrean konposatua, intentsitate emozional handia eta gizakiaren barne munduaren sakontasuna islatzen ditu. Hasieratik azken mugimendura arte tentsioa eta mugimenduaren indarra

BAKARLARIAK: *'The Creation'* kontzertuan abestuko duten hiru bakarlaririk: Olatz Saitua (sopranoa), Aitor Garitano (tenorra) eta Juan Laboreira (baritonoa).

nabarmetzen dira, baina beti oreka perfektuaren barruan. Sinfonia honek klasizismoaren eta erromantizismoaren arteko zubi lana egiten du, Mozarten sentiberatasun eta indar estetikoaren gailurra erakutsiz.

Haydn-ek eta Mozartek, bakoitza bere moduan, denboraren kontrola, mugimenduen erritmoa eta isiltasunaren balioa maisuki landu zituzten, eta hortik *'TEMPO'* izenburua. Kontzertua Bidaurretako monasterioan izango da (19:00). Sarrera, 8€.

HAYDN-en 'THE CREATION'

Urtea borobiltzeko, abenduaren 28an Haydn-en maisulan handienetakoa bat *–The Creation–* eskainiko dute Ganbara

Abesbatzak eta Aequus Ensemblek. Ehundik gora musikaririk –korua, orkestra eta hiru bakarlaririk– parte hartuko dute kontzertu berezi honetan. Olatz Saitua (sopranoa), Aitor Garitano (tenorra) eta Juan Laboreira (baritonoa) izango dira solistak, hirurak ere goi mailakoak. Beraien ahotsen indarra eta adierazkortasuna ezinbestekoak izango dira Haydn-en obraren mezu espiritual eta poetikoa publikoarengana iristeko.

'The Creation' munduaren sorrera ilustratzen duen oratorioa da, eta gaur egun ere musika sakroaren historiako maisulan nagusietako bat da. Bertan bildu zuen Haydn-ek bere unibertso artistikoaren osotasuna. Kontzertua Bidaurretako monasterioan (19:00) izango da (10€).

"Musika eskaintza oso aberatsa egiteko aukera ematen digu Aequus Ensemble orkestrak"

» AITOR BIAIN BIDARTE / Aequus Ensemble orkestrako zuzendaria

Lau urte igaro dira Oñatiko Ganbara Faktoriak orkestra propioa sortzeko urratsa eman zuenetik. Proiektu eta erronka berriei ekiteko aukera edukitzea zen helburua, punta-puntako sinfonika egin ahal izatea, eta horren adibide dira abenduan zehar eskainiko dituzten bi kontzertuak: **Tempo** eta **Kreazioa**, Haydn eta Mozarten obreakin. Aitor Biain zuzendariarekin hitz egin dugu.

A ze luxua Aequus bezalako orkestra bat herrian bertan edukitzea, ezta?

Bai, uste dut garrantzitsua dela Oñatirentzat halako orkestra bat edukitzea, herriko eskaintza musikala aberas-teko. Goi mailako kontzertu sinfonikoez herrian bertan gozatu ahal izatea aukera paregabea da.

Horren adibide, abenduan emango dituzuen bi kontzertutzarrak.

Obra potenteak dira, bai. Alde batetik 'Tempo' izenburupean, XVIII. gizaldiko bi erraldoren –Josep Haydn eta Wolfgang Amadeus Mozart– sinfonia eder bana eskainiko ditugu, denboraren eta erritmoaren kontzeptuak ardatz hartuta.

Bestetik, Ganbara Abesbatzarekin batera, munduaren sorrera irudikatzen duen *The Creation*, Haydn-en oratorio arrakastatsua interpretatuko dugu, goi mailako hiru bakar-lariren laguntzarekin. Denera, ehundik gora musikarik parte hartuko dute. Esperientzia musikal handi eta hunkigarria zuzenean gozatzeko aukera

bikaina. Kontzertu biak akustika paregabea duen Bidaurretako Monasterioan izango dira.


Hari-orkestra bezala jaio zen Aequus, baina emanaldi hauetarako haize-instrumentuak ere behar dituzue, ezta?

Bai, musika sinfonikoa izanik, haize-instrumentuak ere behar ditugu eta, beraz, beste hainbat musikari batuko zaiz-

kigu emanaldi hauetarako.

Lau urte igaro dira Aequus Ensemble orkestra sortu zenutenetik. Zein momentutan dago taldea?

Orkestra momentu onean dago. Kontserbatorioetan ikasten ari den jende askok parte hartu nahi izaten du gure orkestran, beraientzat aukera oso polita delako, eta programa interesgarriak prestatzen ditugulako. Datorren urtera begira, adibidez, Basauri, Beasain eta beste leku batzuetan jotzeko eskaintzak jaso ditugu eta pozik gaude.



OÑATIARRAK ORKESTRAN

Sara eta Maialen Txintxurreta ahizpek biolina jotzen dute Aequus Ensemble orkestran

Proiektu berririk esku artean?

Bai, beti ditugu proiektuak buruan. Datorren urtera begira aurreratu dezaket *Beethoven-en 7. Sinfonia* joko dugula, eta beste sorpresaren batzuk ere baditugu. Arlo pedagogikoan ere lankidetzan dihardugu Oñatiko Musika Eskolarekin, bertako ikasleek aukera izan dezaten orkestra bat barrutik ezagutzeko, eta urteroko kontzertu pedagogikoaz gain, topaketa moduko bat, eta bestelako urrats batzuk ere eman nahi ditugu. Esan dezakegu une honetan indartsu dagoen proiektua dela *Aequus Ensemble*.

 **COINBROKER**
OÑATI ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS
ASEGURU AHOLKULARITZA ESPEZIALIZATUA

ARANTZAZUKO AMA KALEA 9, BEHEA
943 089 006 688 774 531 - WHATSAPP
OINATI@COINBROKEREUS





'Ama'

Emakumeei eta amei eskainitako ikuskizun multidiziplinarra eskainiko du Hots Abesbatzak

> **Abenduaren 21ean, Santa Ana antzokian, 19:00**

Argazkiak, dantza, musika eta ahotsa uztartzen dituen ikuskizun multidiziplinarra da **'AMA'**. "Emakume izatearen eta amaren figura jorratzen ditu, belaunaldiz belaunaldi transmititzen diren maitasun, memoria eta baloreak nabarmenduz. Ikuskizunak erakusten du amaren begiradak zenbat mundu gordetzen dituen, bizitza, memoria eta emozio desberdinak ikuslearen aurrean jarrita", adierazi dute antolatzaileek.

Ganbara Faktoriako Hots abesbatzarekin batera, **Candem Town** dantza taldeak, **Amaia Zipitria** piano-joleak eta **Arrate Kortabarria** narratzaileak ere parte hartuko dute, **Aitor Biain Bidarteren** zuzendaritzapean. Sarrera, 8€.

ESTREINALDIA

Ikuskizunean zehar **'Galera eta oroimena'** izeneko obra estreinatuko da. Iker Gonzalez zumaiarrak konposatu du, Hots Abesbatzaren enkarguz. Testua Josu Zubiak idatzi du.

BLOKE NAGUSIAK:

1. Sarrera – Iturburua:

- Narratzaileak "ama" hitza azaltzen du: bizitzaren lehen oihua eta babesaren iturburua.
- Kontzertua emakumeei, amei eta amatasuna bizi izan duten guztiei eskainia dago.
- Pieza musikalak: *La Mar Quiere Ser Cielo* (D. Andreo), *Agur Maria* (J. Busto)

2. Amaren Besarkada – Haurtzaroa:

- Haurren ikuspegitik, ama da lehen etxea eta lehen irakaslea.
- Musika: *Ume Eresiak* (J. Elberdin), *Etxea* (J. Guerrero)
- Dantza: Bloke honetan ume eta amaren arteko lotura eta begiraden magia erakusten dira.

3. Emakumea izatea:

- Ama ez da soilik ama, emakumea ere bada; bere lana askotan ikusezina baina ezinbestekoa da.
- Musika: *Elementuen Kantak* (E. Ugalde)
- Begiradak eta mugimenduak emakume izatearen dimentsioak esploratzen dituzte.

4. Amama – Memoria eta Ondarea:

- Amamek transmititzen duten jakinduria, tradizioa eta baloreak.
- Musika: *I Remember* (S. Quartel), *Maite Zaitut* (J.P. Keelan)
- Dantza: amamaren presentzia eta memoria, begiraden bidez ikuslearengan transmitituz.

5. Galera eta Oroimena:

- Ama joaten denean, bere begirada oroitzapen bihurtzen da.
- Musika: *Galera eta Oroimena* (I. Gonzalez), triptikoa
- Dantza: hutsunea eta oroimena irudikatzen ditu, begirada bakoitzak gordetzen duen mundua azaleratuz.

6. Ama eta Etorkizuna – Begirada Berriak:

- Amaren eta emakumearen figura berritzailea; belaunaldiz belaunaldi utzitako ametsak eta borroak.
- Musika: *Glorious Life* (L. Favel), kanpaiekin
- Begiraden bidez etorkizunaren itxaropenak eta erronkak erakusten dira.

7. Amaiera – Bizitzaren Zikloa:

- Ama izan, ama izan zen, ama izango da.
- Belaunaldiz belaunaldi, maitasunaren sua transmititzen da.
- Musika eta dantza: *Good Night, Dear Heart* (D. Forrest)
- Ama bakoitzaren begirada eta memoria ikuslearen bihotzean gordetzen dira.



MIREN UGARTE
Fisioterapia

Etkez-etxeko tratamendua:

- Neuroerreabilitazioa
- Heldu nagusiak
- Traumatologia

Arreta pertsonalizatua eta eguneroko beharretara egokitua

T. 609 589 843 · miren.fisioterapia@gmail.com

'HATOR HATOR-2025'

> Gabonetako kontzertu solidarioa abenduaren 21ean izango da, Zubikoa pilotalekuan (12:30) > Amaieran diru-batzea egingo da Misio Taldeak Dhagguel-en (Ginea Konakry) eraiki nahi duen osasun zentroaren alde

→ PARTAIDEAK

- Ganbara Abesbatza
- Hots Abesbatza
- Oñati Abesbatza
- Oñatiko Musika Banda
- Oñatiko Banda Gaztea

Urtero bezala, eguberri giroan mur-gilduko gaituen kontzertua eskainiko dute herriko musika talde eta abesbatzek. Talde bakoitzak bina pieza jo edo abestuko ditu eta, ondoren, denek batera *El ilustre marino* (Oscar Navarro) interpretatuko dute. Amaieran, ohi bezala, *Adeste Fideles* eta *Hator Hator* gabon doinuekin borobilduko dute kontzertua. Miren Arregik aurkeztuko du saioa.

Emanaldia dohainik da, baina gonbidapena eskuratu behar da Txokolateixan. Amaieran diru-batzea egingo da Misio Taldeak Dhagguel-en (Ginea Konakry) duen elkartasun proiektuaren alde.

→ EGITARAUA

Musika Banda

1. *Los últimos de Troya* (D. Rivas)
 2. *Pollar Express* (Arr: J. Brubaker)
- Zuzendaria:** Aitor Biain-Bidarte

HOTS Abesbatza

1. *I Remenber* (S. Quartel)
 2. *Glorius Life* (L. Favel)
- Pianoa:** Amaia Zipitria
Zuzendaria: Aitor Biain-Bidarte

Oñati Abesbatza

1. *Gabon gaua* (Aita Madina)
 2. *Feliz Navidad* (José Feliciano)
- Zuzendaria:** Mirengu Plazaola

Ganbara Abesbatza

1. *Earth Song* (F. Ticheli)
 2. *Sagastipean* (J. Busto)
- Zuzendaria:** Aitor Biain-Bidarte

Tutti

1. *El ilustre marino* (O. Navarro)
- Zuzendaria:** Aitor Biain-Bidarte

→ Osasun zentroaren proiektua



Oñatik jarraitzen du Dhaguellekin (Ginea Konakry) duela urte batzuk hasi zuen elkartasun-ibilbidea sendotzen. Ibilbide hori hasi zen haur-eskolaren eraikuntzarekin, jarraitu zuen neska gazteentzako lanbide-eskola batekin, eta orain osasun-zentro berri baten eraikuntzarekin egingo du aurrera.

Proiektu berri honek aukera emango dio eskualde osoari oinarritzko arreta medikoa tokian bertan jasotzeko, gaur egun ordu luzez bidaiatu behar baitute ospitale batera iristeko.

→ Dhaguelleko Osasun Zentroa eskualdeko erreferentzia izango da, ehunka familiari arreta medikoa eskaintzeko eta bizitza duinagoa ahalbidetzeko

Zentroak izango ditu kontsultagelak, erditze-gela, behaketa-gela, farmazia, komun-blokea eta osasun-langileentzako bizitokiak, besteak beste. Era berean, anbulantziarako aparkalekua, berdeguneak eta herritarrek segurtasunez sartzeko gune egokituak ere aurreikusi dira.

Proiektu hau jarraipena da Misio Taldeak Ginea Konakryn azken urteotan egindako lan solidarioari, eta Oñatiko komunitatearen konpromiso iraunkorraren isla da.

Lanaren aurrekontu estimatua 375 milioi franko ginear (40.000 euro inguru) da, eta tokiko materialen, langileen eta jarraipen teknikoaren kostuak barne hartzen ditu. Obraren ardura A.D.D. elkartearen esku egongo da, bere presidente Mamadou Alpha Bahren zuzendaritzapean, Oñatiko taldearekin urte askotako lankidetzan.

“Proiektu hau ez da eraikin bat soilik; elkartasunaren hari batez lotutako komunitate bat da”, azaldu dute Misio taldeak. “Harro gaude Oñatiren izenean itxaropena eta bizitza eramateaz milaka kilometrora dagoen herri batera”.

ELKARRIZKETA FILOSOFIKOAK

'Entzutea naturala da, ala landu behar dugun barne-ahalmen bat da?'

> UDAL LIBURUTEGIAN, ABENDUAREN IOEAN, 18:00ETAN

Udal liburutegiak 'Elkarrizketa Filosofikoak' saio berri bat antolatu du, gaur egungo gizarteak eskatzen duen hausnarketa sakona eta elkarrizketa zabal eta eraikitzailea sustatzeko asmoz. "Gaur egungo erronka sozial, kultural eta etikoen aurrean, funtsezkoa da gune partekatuetan sortzea, non herritarrek elkarrekin pentsatu, zalantzak partekatu eta ideiak modu irekian kontrastatu ahal izango dituzten", adierazi dute liburutegiko arduradunek. "Gain-informazioak markatutako testuinguru sozial azkar honetan, liburutegiak ezinbestekotzat jotzen du gelditzeko, sakontzeko eta beste begirada batzuekin hitz egiteko ohitura berreskuratzea".

Iragan martxoan egin zen aurreneko solasaldi filosofikoa 'Nola baldintzatzen gaitu adinak?' gai hartuta, eta saio hark izan zuen arrakasta ikusirik (60tik gora lagun bertaratuziren), horrelako elkarrizketa filosofikoak proposatzen jarraitu nahi dute udal liburutegian.

ENTZUTEA

Entzutea izango da bigarren solasaldi filosofikoan landuko den gaia. Miren Camisón filosofoak dinamizatuko du saioa, eta berak aurreratu digu nondik nora joango den saioa. "Plutarkok, erromatar garaiko filosofo greziarrak zioen: 'Lehenik eta behin komeni zaigu entzuten ikastea, arrazoitzen eta ondo hitz egiten ikasi aurretik'. Gaur egungo gizartean, estresa, erritmo bizkorra eta arretaren dispersioa gailentzen ari denez, entzumen bare eta arretatsuari buruzko ikerketa eta hausnarketa filosofikoa antzinatean bezain garrantzitsua edo, agian, premiazkoagoa zaigu. Nola entzuten dugu? Zer esan nahi du entzuteak? Naturala al da gizakiarengan entzuteko prestasuna? Beharrezkoa al da entzutea lantzea?".

Ez da beharrezkoa filosofiari buruzko ezagutzarik edukitzea saioan parte hartzeko.



MIREN CAMISÓN
Filosofia Faktoria
guneko arduraduna



"Besteekin filosofatzean kontu handiagoz eta egiazkotasun gehiagoz azter ditzakegu gure ideiak"

Elkarrizketa filosofikoak benetako erronka mentala, emozionala eta espiritualak dakar, beste pertsona batzuekin batera hausnartzen dugunean. Erronka bat suposatzen du ideia-aniztasun handia biltzen dituelako, baina, aldi berean, pertsonen arteko topaketa errazten du, haren metodologiak entzute sakoneko eta elkarrekiko konfiantzazko espazio bat gaitzen duelako.

Espazio horretan, besteek dituzten ikuspegi eta interpretazio-eredu alternatiboak entzutera ireki gaitzke, nahiz eta gure pentsamendu diskurtsiboaren eta argudiaketaren mugak hankaz gora eta zalantzan jartzera eraman gaitzaketen, eta baita gure sinesmen errotuenak ere. Hortaz, besteekin filosofatzean, kontu handiagoz eta egiazkotasun gehiagoz azter ditzakegu gure ideiak, sinesmenak, ikusmoldeak eta portaerak.

Ganbara Abesbatza Benissalemeko lehiaketan ariko da

Aitor Biain-Bidartek zuzentzen duen Ganbara Abesbatzak Maillorcako Benissalem herriko IV. Abesbatza Lehiaketan parte hartuko du abenduaren 5etik 7ra. Espainiako txoko ezberdinetako zortzi abesbatzek parte hartuko dute eta Ganbara izango da Euskadiko ordezkari bakarra.

Oñatiarrek abenduaren 6an abestuko dute, akustika bikainagatik eta historiagatik ezaguna den Benissalemgo parrokian. Antolakuntzak ezarritako abestiez gain, Ganbarakoek garaiei eta estetikari arteko bidaia musikala proposatzen duten beste hiru obra ere prestatu dituzte, tartean, Javier Bustoren 'Sagastipean', euskal musikaren emozio eta erritmoaren adierazgarri bikaina.

'Arantzazu' dokumentala *Primeran* plataforman ikusgai

Euskal Herriko eta Espainiako hainbat zinema aretoan proiektatu ondoren -3.00 ikusle bildu ditu bere ibilian-, **Arantzazu. 36 zm, 5 mende, herri bat** dokumentala *Primeran* plataforman egongo da ikusgai aurrerantzean.

Arantzazulab-ek sustatutako lan honen bidez, Arantzazuk Euskal Herriari egindako ekarpen sozial, kultural eta espiritualak ezagutzera ematen da. Pello Sarasuak zuzendua, dokumentala *Arteman* komunikazio agentziak ekoitzi du eta EITB zein Berria komunikazio taldeen babesa eta bultzada izan ditu.

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teletel.es

GARBIKETA ADMINISTRAZIOA ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarleen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47

Oñati

>> LITERATURA TXATALAK (IX)

Graziano Anduaga, Gesaltzako aittajauna (II)**Kontakizunak (I)**

Testua: Roberto Altuna / Ilustraziñuak: Jabier Erostarbe

Gurasuakin zu nola, zure umiak zurekin hala

Gizon bat bazixoian aitta bizkarrian hartuta ospitalera eruatera. Eta kantzau zanian itzi eben petril baten gaiñian. Aittak orduan esan otsan semiari: –Bai, seme, neuk be nere aitta ospitalera eruan nebenian, hementxe deskantzau nintzuan. Eta hurrengo hire txandia dok. Orduan seme hori konturatu zan eta esan eben bere artian: –Gaizki ñabik, eruan daian* aitta atzera etxera eta bizi dan arte ondo zainttu. Bestela neuk be ospitalera bihar dot eta. Eta handik aurrera aitta bera baiño hobeto zainttu eben.

(*) Eruan daian = eruan degidan = batuan, eroan dezadan

**Zein gauza ona dan bata bestiagaz!**

Nere amandriak esaten eben bizi zirala senar-emazte batzuk kriadiarekin. Eta eraten euela bazkarixan kurkubitta* bat ardau. Eta pentsau euela ardaurik ez eratia, karu zala eta. Hasi ziran, ba, bazkaritten, eta gizonak, egarritu zanian, esan eben: –Zein gauza ona dan bata bestiagaz! Orduan andriak erantzun eben: –Badoiala neskia kalabaziagaz! Neskiak, salto batian fanda, ekarri eben ardaua. Eta gero esan eben: –Hoba dogu lehengo moduan jarraiketia, egarrixak bizi barik!

(*) Kurkubitta = kalabaza txiki bat

**Iñoren pekatuak ez konfesau**

Andra bat fan zan konfesaittera, eta mandamentu danetan berak bape pekatuak ez eukala esan otsan abariari, baiña beste etxeko andriak pekatu asko eta haundixak egitten zittuela ikusten ebela. Akaberan abariak emun otsan penitentzia aldeko andriaren pekuakatik: mezak etara eta entzun egixela* zortzi egunian. Andria larritu zan eta erantzun otsan: –Baiña haren pekatuak nik pagau bihar al dittut? –Bai, zuk konfesau dittuzu eta penitentzia zuk zor dozu. Orain bestia libre dago. Eta berriz etzan fan, ez, iñoren pekatuak konfesaittera.

(*) Entzun egixela = batuan, entzun zezala/zitzala



- Kontakizunak moldauta dagoz Oñatiko euskerara.
- Itturrixa: Aitta Villasanteren 'Graziano Anduaga. Aitonaren uzta' liburua.
- Oharra: Kontakizun gehixago irakurteko jo Aitta Villasanteren 'Graziano Anduaga Aitonaren uzta' edo Ander Lizarralderen 'Graziano, eta beste...' liburuetara.

AGENDA

AZOKAK

ABENDUAK 20 / 10:00-14:00

BIGARREN ESKUKO AZOKA

Hainbat herritarrek antolatuta. **Plazan.**

ABENDUAK 21 / 10:30-14:15

OÑATIKO ARTISAUEN AZOKA

Herriko artisauen lanak. **Merkatu plazan.**

ERAKUSKETA

ABENDUAK 1 - 30 / 18:00-20:00

'HUTSETIK BIZIRA'

Vicente Uli Garridoren egurrezko artelaren erakusketa. **Kultur etxean.**

URTE AMAIERA ARTE

ESTEBAN KEREXETAREN ESKULTURAK

'Gerra' izenburupean egindako eskulturak ikusgai. **Urzelai estankotan.**

ABENDUAK 9 - 12

'EKONOMIA BIRPLANTEATZEN DUTEN EMAKUMEAK'

Garai, leku eta diziplina desberdinetako emakumeek ekonomiari egiten dizkioten ekarpenak. **Enpresagintza faktultatean.**

HITZALDI-SOLASALDIAK

ABENDUAK 10 / 18:00

ELKARRIZKETA FILOSOFIKOAK

'Entzutea naturala da ala landu behar dugun barne-ahalmen bat da?'. Hizlaria: Miren Camisón. **Udal liburutegian.**

ABENDUAK 11 / 18:00

GABRIELA WIENERekin SOLASEAN

Kazetaria, idazlea eta aktibista feminista da Gabriela Wiener. **Eltziako 3. solairuan**

IPUIN KONTAKETAK

ABENDUAK 18 / 18:00

'URRUTI ETA GERTUKO PLAZA IPUINAK'

'Ostegun kontalariak' ekimenaren baitan Ane Gebararen ipuin kontaketa saioa LH1etik gorako gaztetxoentzat. Izen-ematea, abenduaren 9tik aurrera. **Haur liburutegian.**

MAGIA JAIALDIA

ABENDUAK 29 / 12:00

MAGIA-POTEOA

Plaza inguruko tabernetan Oñatiko eta Euskal Herriko magoen gertuko magia (kartak, txanponak...) gozatzeko aukera.

'Elkartasun taupadak' / Abenduak 13, Foruen plazan, 10:00



ELKARTASUN AZOKA Elkar Hezi ikastetxeak antolatuta, elkartasun azoka egingo da abenduaren 13an, herriko plazan (10:00-14:00). Gure bailarako ekosistema solidarioa ezagutzera eman eta sustatzea helburu duen ekimena. Hamar bat Gobernu Kanpoko Erakunderen lana ezagutu eta beraien produktuak erosteko aukera egongo da.

'Utzi Sorginei' dokumentala

Abenduak 16 eta 17, zinean, 19:00



DOKUMENTALA Ikazkintzatik bizi izandakoen lanari aitortza egin eta antzinako jakintza transmititzea helburu zuen 'Txondorraren bueltan' egitasmoaren baitan, iaz San Martinen piztu zen txondorraen sortze prozesua erakusten duen dokumentala. **Zine aretoan. Dohainik.**

ABENDUAK 29 / 17:30

OÑATIKO MAGIA GALA

Iago Mago, Xabi Lizaso eta Potx magoa. Giro goxo eta intimoan familian magia gozatzeko aukera. **Gaztelekuan**

MUSIKA

ABENDUAK 13 / 22:00

MALKO

'Minmugak' disko berriaren aurkezpena. **Gaztelekuan.**

ABENDUAK 14 / 19:00

'TEMPO' Mozart eta Haydn-en sinfoniak

Aequus Ensemble orkestraren eskutik Bidaurretan.

ABENDUAK 20 / 17:00 eta 19:00

GOIAZEN 12.0

ETBko telesaileko aktoreek bi emanaldi egingo dituzte. **Santa Ana antzokian.**

ABENDUAK 20 / 19:45

OÑATI ABESBATZA

Gabonetako kontzertua. **Agustinoetan.**

'Hurrengo hiru urteetako ezohiko eguzki eklipseak'

Abenduak 26, zine aretoan, 18:30



HITZALDIA 2026an Oñatitik eguzki eklipse oso bat ikusiko dugu. une batez eguna gau bihurtuko delarik. Hizlaria: Esteban Peñalba, matematikari eta astronomoa. Ilartargi taldeak antolatuta. **Zine aretoan.**

ABENDUAK 20 / 22:00

SERMOND'S eta CHULERÍA, JODER!

Rock eta punk-rock doinuak, Burrunda faktoriak antolatuta. **Antixena gaztetxean.**

ABENDUAK 21 / 12:30

'HATOR HATOR-2025'

Ganbara, Hots eta Oñati abesbatzak, eta Musika Banda eta Banda Gaztearen Gabonetako kontzertua. **Zubikoa pilotalekuan.**

ABENDUAK 21 / 19:00

'AMA' Hots Abesbatzaren eskutik

Musika eta dantza uztartzen dituen ikuskizuna, **Santa Ana antzokian.**

ABENDUAK 27 / 19:30

JANUS LESTER

'Lore' diskoaren aurkezpena **Gaztelekuan.**

ABENDUAK 28 / 12:30

GOSPEL KONZERTUA

'Gospel Soul Celebration'. **Santa Anan.**

ABENDUAK 28 / 19:00

'THE CREATION' Kontzertu sinfonikoa

Gabonetako emanaldi bereziak Oñati Irratian (FM 107.4)



Mikel Aranburuk gidatuko du aurtien ere abenduaren 25eko irratsaio berezia

Hutsik egin gabe, Gabonetan eskaintzeko saio bereziak prestatzen ari gara Oñati Irratian. Urtean zehar herrian izan diren hiru bertso jaialdi gorde eta abenduaren 24an, 31n eta urtarrilaren 1ean emango ditugu, goizeko 10:00etan hasiko diren irratsaioetan.

Baina berezietan bereziena abenduaren 25eko saioa izango da, Mikel Aranbururen eskutik, aurtien ere. Gabonak atzerrian emango dituzten oñatiarrak elkarriketatuko ditu, etxera hurbilduz, eta asteburuetan laguntzen digun irrati-esataria aurkeztuko digu. Entzuleentzako sariak ez dira faltako, *Odriozola* harategiaren, *Mauxka* jatetxearen eta Txinparta Bertso Eskolaren eskutik. Abenduaren 25eko irratsaioa ere, 10:00etan hasiko da.

Gabonetako egun seinatuetaen ere Oñati Irratiak konpainia egingo dizu!

Joseph Haydn-en maisulanetako bat. Aequus Ensemble orkestra eta Ganbara Abesbatza. **Bidaurretan.**

ABENDUAK 28 / 19:30
TXULETONS

Txuletons taldea. **Antixena** gaztetxean.

TAILERRAK

ENEAGRAMA TAILERRA

Maitek eta Lourdesek gidatuta. Hilean larunbat bat. Harremanetarako: 658 719 086 / lourdscid1@hotmail.com. **Lagun Leku (Eltzia).**

ZINEA



Zine-kluba: Osteguna (19:30)
Nagusia: Ostirala (22:00), larunbata (19:30 / 22:00) eta Igandea (19:30)
Gaztetxoak: Larunbata eta Igandea (17:00)
Ikuslearen eguna: Astelehena (19:30)

Abenduak 4 - 8

ZINE KLUBA:
EL ÚLTIMO SUSPIRO (VOSE)
NAGUSIAK:
LOS TIGRES
GAZTETXOAK:
HARTZ-ATZAPAR KANPAMENTUA



Abenduak 11 - 15

ZINE KLUBA:
URCHIN (VOSE)
NAGUSIAK:
LA VOZ DE HIND
GAZTETXOAK:
TIGRE GALDUA



Abenduak 18 - 22

ZINE KLUBA:
VALOR SENTIMENTAL (VOSE)
NAGUSIAK:
SINGULAR
GAZTETXOAK:
ZOOTRÓPOLIS 2



Abenduak 26 - 29

ZINE KLUBA:
-
NAGUSIAK:
NÚREMBERG
GAZTETXOAK:
MISION SANTA



FARMAZIA

ANDUAGA

San Lorentzo 3 / ☎ 943 78 21 16
Abenduak 5, 6, 7, 15 eta 16.
Urtarrilak 2, 3 eta 4.

IGARTUA

Kale Zaharra 1 / ☎ 943 78 01 22
Abenduak 9, 17, 18, 26, 27, 28 eta 31. Urtarrilak 1 eta 5.

GARATE

Kale Barria 42 / ☎ 943 78 05 58
Abenduak 1, 2, 10, 11, 19, 20, 21, 24, 25, 29 eta 30.

ULDAIN

Kale Barria 6 / ☎ 943 78 11 28
Abenduak 3, 4, 8, 12, 13, 14, 22 eta 23.

ODOL ATERALDIA

ABENDUAK 19 / 16:30-20:30
MU-ko Enpresagintza fakultatean. Aurrez, <https://gotatanta.eus> atarian har daiteke odola emateko txanda. Bestela, egunean bertan **943007884** zenbakira deituta.

MERKATU TXIKIA

LURSAIL BILA nabil ganaduarentzat.
Deitu: 656 391 607

UMEAK ZAINDU Oñatiko neska, arduratsua eta atsegina, umeak zaindu edo eskolara eramateko prest, eta adineko pertsonen konpainia egiteko eta paseora ateratzeko prest. Interesatuak deitu: 695 738 795

BASERRIA erosi edo alokatu nahiko nuke: 620 710 109.

SITSA OPARI Ardi sitsa doan eskaintzan da Gomiztegi baserrian. Norberak joan behar du jasotzera 688 689 725.

MERKATU TXIKIA

ataleko iragarkiak dohainik dira.
kontzejupetik@onati.eus
943 78 20 72



SHOWROOM BERRIA IREKI DUGU: 360º ERREFORMAK

Zerkaosteta Kalea, 3, Mondragón.
www.amuebladoramondragonesa.com